



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**AITZINDARI BATEN URRATSAK: LOURDES
IRIONDOREN HAUR ETA GAZTE LITERATURA
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Jainaga Albizu, Lorea.

ZUZENDARIA: Gurrutxaga Muxika, Alexander.

2023

LABURPENA

Lan honetan, Lourdes Iriondok euskal kulturgintzari eginiko ekarpena ikertu da; zehazki Haur Literaturari eginiko ekarpenean jarri da fokoa. Ikerketaren oinarri metodologikoa azterketa narratologikoa izan da. Azterketa horretatik jasotako informazioarekin, irakurketa kritiko bat egin eta ondorioak atera dira.

Hitz gakoak: Lourdes Iriondo, Haur Literatura, narratologia, euskal kulturgintza.

RESUMEN

En este trabajo se ha investigado la aportación de Lourdes Iriondo a la cultura vasca; concretamente se ha puesto el foco en la aportación a la Literatura Infantil. La base metodológica de la investigación ha sido el análisis narratológico. Con la información obtenida mediante ese análisis, se ha hecho una lectura crítica y se han extraído conclusiones.

Palabras clave: Lourdes Iriondo, Literatura Infantil, narratología, cultura vasca.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIOA	5
3. HELBURUAK.....	6
4. IKERKETAREN EGOERA	7
5. METODOLOGIA	8
6. LOURDES IRIONDOREN OBRAREN AZTERKETA.....	9
6.1. Biografia.....	9
6.2. Lourdes Iriondoren obraren esparruak	11
6.3. Corpusaren zehaztapena	12
6.4. Lourdes Iriondoren obra eta testuinguru historikoa	13
6.4.1. HGLren lehengo urratsak.....	15
6.4.2. 36ko gerraren ondoren, ezer ez	16
6.4.3. Euskal kulturaren aldeko mugimendua	19
6.4.4. Argitaletxe berriak, “Kimu” saila eta Lourdes Iriondoren ekarpenak.....	21
6.4.5. Diktaturaren ostean.....	22
7. EZTABAIDA.....	25
8. ONDORIOAK.....	29
9. AZKEN HITZA	31
10. BIBLIOGRAFIA.....	32
11. ERANSKINAK.....	36
1. eranskina: Obraren deskribapena	36
1.1. Martin Arotza eta Jaun Deabrua eta Sendagile Maltzurra (1973).....	36
1.2. Hego-haizearen ipuinak (1973).....	40
1.3. Asto baten malura (1975).....	43
1.4. Buruntza azpian (1975).....	44
1.5. Lotara joateko ipuinak (1982).....	48
1.6. Ipuiak (1975) eta Ortzadarra (1978).....	51
2. eranskina: Xabier Lete Funtseko liburuen erreferentzia.....	54

1. SARRERA

Emakumeen presentzia urria izan da euskal literaturaren historiografian, eta urritasun hori oso adierazgarria da, bereziki, Haur eta Gazte Literaturaren arloan, “emakumeak euskarazko irakaskuntzan izan duen protagonismo nabarmenarekin” (Olarizegi, 1999, 15 or.).

Literaturaren historiografiak alde batera utzi dituen figuren artean dago Lourdes Iriondorena. 60 eta 70etan egin zuen lanak oihartzun handia izan bazuen ere orduan, gaur egun, aldiz, haren liburu argitaratuak eskuratzeko zailtasuna bera Iriondoren obraren ahanzturaren, eta, beraz, ikerketa beharraren seinale da.

Gauzak horrela, nire ikerketak Lourdes Iriondoren lan literarioen edukia izan du aztergai, garaiko testuingurua ahaztu gabe; ondoren, haren figuraren garrantzia aldarrikatzeko.

Sarri ez dut emakume erreferenterik erdigunean aurkitu: periferian edo ezkutuan egon dira eta bilatu egin behar izan ditut. Gradu Amaierako Lana aukeratzeko orduan, gaiak atentzioa eman zidan: Lourdes Iriondoren Haur eta Gazte Literatura. Nik kantagintzagatik ezagutzen nuen, eta haren inguruan informazioa bilatu nuenean, aitzindari bat izan zela konturatu nintzen.

Zorionez, emakumeen ekarpenak hizpide dituzten lanak apurka-apurka gehitzen doaz. Dena den, literatur arloan, badago zer egiterik. Gutxi dira euskal literaturaren historian euskaraz idatzi duten emakumeei eta haien obrei buruz egin diren lanak. Horregatik, lan hau aukera ona iruditzen zait lehenengo pausoak eman zituen emakume horietako bat berriz erdigunera ekartzeko. Datorren belaunaldiek ere honen berri jakin dezaten eta *herstorya* osatzen joateko pausoak ematen jarrai dezagun.

2. JUSTIFIKAZIOA

Lourdes Iriondo (1937-2005) euskal kantagintzaren eta Haur Literatura garaikidearen aitzindari izan zen. Lan handia egin zuen 60 eta 70eko hamarkadetan euskal kulturgintzan, baina bere figura eta obra ahanzturan erori dira transmisio faltarengatik.

Hutsune hori neurri batean betetzeko asmoz (edo horretan hasteko, behintzat), ikerketa honen lehen helburua da Iriondok eginiko lanari aitortza egitea.

Alde batetik, 1965 eta 1978 urteen artean plazaz plaza ibili zen kantari, bere abestiekin gizarteari hainbat mezu transmitituz, eta bederatzi disko argitaratu zituen. Letrekin adierazi nahi zuenaz gain, aipagarria da garai hartan ez zela ohikoa, Euskal Herrian, emakume bat oholtza gainean agertzea bakarrik eta gitarra eskuetan zuela.

Beste alde batetik, 1973koak dira bere lehenengo literatur lan argitaratuak, hau da, euskal literaturaren loraldia gertatu aurrekoak; edo, beste hitz batzuekin esanda, euskal literatur sistema garaikidea konfiguratu aurrekoak, hori ez baitzen gertatu 80ak arte. Bost lan publikatzeaz gain (bi antzerki liburu eta hiru narrazio liburu), publikatu ez diren hainbat obra idatzi zituen herriko antzerki talde eta ikastolarako; umeentzat ia ezer ez zegoen garaian. 80ko hamarkadan urgentziazko produkzioa egon zen ikastolen hazkundearekin batera, baina Lourdes Iriondoren lanak garai horren aurrekoak dira.

Hori guztia dela eta esan dezakegu aitzindaria dela. Dena den, arestian aipatu bezala, ez zaio oihartzunik eman bere lanari.

Frankismo garaian eta frankismo osteko urteetan euskal giroko ekoizpen kulturalak jazarpena jasaten zuen garaikoak dira bere lanak, horrek suposatzen zuen guztiarekin: besteak beste, abestietan Euskal Herriari buruzko edozein mezu transmititzeko metaforak erabiltzea, letra batzuk abesteko baimenik ez lortzea, eta, liburuak argitaratzerako orduan zentsura pairatzea. Zailtasunak zailtasun, Iriondok euskarari eta euskal kulturari asko eskaini zion, eta, horregatik, bere lana lehen planora ekartzea zor diogu.

Esanak esan, ezin dugu bere lana gaurko begiradaren arabera epaitu, garaiak aldatu egin baitira. Aztertu dezakegu, ordea, bere obrak egindako ekarpena, ondoren etorriko zirenei oinarria eskaini baitzien. Gaur egun garena, Lourdes Iriondo bezalakoengatik baikara.

3. HELBURUAK

Linda Whiten (2000) esanetan, euskal literaturaz ari garenean, pertsona gehienek gizonetakoek idazten duten eta gizonetakoek kritikatzeko mundu maskulino batean pentsatzen dute; mundu horretan, emakumeak txoko historiko batzuetan bakarrik daude, edo bost edo hamar emakumek baino ez dute idazteko gogoia eta talentua. Horixe da euskal literaturaren mitoa, baina ez literatura arloan emakumerik egon ez delako, baizik eta inork errealitatea ikertu ez duelako.

Emakumeek 36ko gerraren aurretik idatzi dute, baita ondoren ere; berrogeita hamarreko, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan (White, 2000). Alabaina, ikusezinak izan dira. Amaia Alvarezek (2005) dio historialari eta kritikariek baztertu egin izan dutela andreen lana urteetan zehar, eta, aipatzekotan, haien generoarekin lotutako ezaugarriak erreparatu eta hori gutxietsiz egin izan dutela.

Ikusezintasun edo ahanztura horren aurrean, Nerea Azurmendik (1987) hurrengoak dio *Jakin* aldizkarian:

Argigarria eta beharrezkoa izango litzateke, dena dela, sakabanaturik dauden idaztiak, agortutako liburuak, bildu gabe geratu diren lanak, galduta dauden emaitzak eta, oro har, gehiegi preziatu ez diren emaitza hauek, berrikusi eta errekueratzea. (1987, 31 or.)

Gauzak horrela, emakume idazleek euskal literaturari eginiko ekarpenak argitaratu ekartzeko eman diren lehenengo urratsen artean, nik neure alea jarritz, ikerketa honen helburua Lourdes Iriondok eginiko lana berreskuratzea, aztertzea eta balioan jartzea izango da.

Nahiz eta kantagintzan lan handia egin zuen, dokumentu honetan Haur Literaturan eginiko ekarpenari erreparatu zaio.

Ikerketaren helburuak, zehatzago, honela formula daitezke:

- Lourdes Iriondoren figura aldarrikatu, ikuspegi feministatik.
- Bere literatur obra jaso eta zehaztu: liburuen izenburuak, argitaraturiko urteak...
- Lourdes Iriondoren literatur obra argitaratua aztertu, narratologiaren argitan.
- Lourdes Iriondok egindako lana kritikoki balioetsi.

4. IKERKETAREN EGOERA

Aurreko atalean aipatutako ikertzaileek egindako lanetan, argi geratu da literatur historian eta literatur arloko ikerketetan emakumeen presentzia falta izan dela.

Si revisamos cinco obras historiográficas sobre la literatura vasca –las de Kortazar, Michelena, Mujika, Sarasola, Villasante– hallamos 261 autores en total. De ese número, solamente seis (6) son mujeres (Mayi Ariztia, Catalina Elicegui, Lurdes Iriondo, Luisa de Misericordia, Vicenta Moguel, Arantza Urretavizcaya). (White, 2000, 272 or.)

Harrigarria da. 60ko eta 70eko hamarkadetako prentsan, Lourdes Iriondok zeresana izan zuen eta ezizen handiak jarri zizkioten: Gabriel Arestik “Euskal Herriaren nobia”, Luis Iriondok “Euskal Herriko Joan Baez” edota *La Voz de España* egunkariak 1966.urtean eskaini zion “Izar berri bat sortu da gure musikaren zeru-sabaian!” lerrobua (Iriondo, 2006). Edonola ere, egungo historiografian eta ikerketetan figura honek zuen dirdira ez da batere islatu, ez kantagintzan eta ez literaturan.

Hori horrela izanik ere, egon da aipatutako errekonozimendu falta salatu duenik. Amagoia Gurrutxagak *Berria* egunkarian argitara emandako erreportajearen, euskal literaturako eta antzerkigintzako hainbat figurak Lourdes Iriondorekiko duten estima adierazi du. Joxe Mari Iriondok, esate baterako, zera dio: “Lourdesi ez zaio aitortu ezer ere” (2020). Mariasun Landak, berriz, honako balorazioa egiten du:

1976-1977. urteetan, esku artean euskaraz genituen liburu apurretako bat haren *Buruntza azpian* antzezlanaren zen, eta *Martin arotza eta Jaun deabrua* ere asko erabili genuen. Hainbeste hutsune zegoen momentu hartan espazioa bete zuela zin egiten dut. Haur eta gazte literaturaren historian agertu behar luke Lourdes Iriondok. Garrantzi handia izan zuen, urte haietan ez zegoelako ezertxo ere. (Gurrutxaga, 2020)

Gaur egun, haren ekarpenen inguruan ezer gutxi dago: Xabier Etxanizen *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia* (1997) liburuan Iriondoren argitaratutako obraren aipamenak; eta Etxaniz (2012) beraren eta Amaia Alvarezen (2015) azterketa zehatzagoak *Buruntza azpian* liburuaren inguruan.

Ondorioz, esan daiteke gauza ugari dagoela Lourdes Iriondoren obraren inguruan aztertzeko.

5. METODOLOGIA

Azterketa narratologikoa, literaturaren eta hezkuntza arloetan, unibertsitateko lan akademikoetan gehien erabiltzen den tresna da (Diaz, 2013).

Narratologia, etimologikoki, narratibaren zientzia litzateke, eta Euskaltzaindiaren literatura terminoen hiztegian era honetan definitzen da:

Narratibari buruzko hausnarketa teoriko eta metodologikoaren alorra da narratologia, eta esparru autonomoan lantzen du narratiba. Hartara, testu narratiboen azterketa du oinarrian, eta, horretarako, narratiba egituratzen duten kodeak sistematikoki deskribatzen saiatzen da, eta kode horiek sortzen dituzten zeinuak aztertzen. Oro har, testu narratibo baten esakuntzaren beraren aurretik dagoen ekoizpen dinamikaz dihardu. Narratologiak lehentasuna narratibaren ezaugarri modalei ematen dienez, ez ditu testu narratibo literarioak bakarrik aztertzen, zineaz, komikiaz edo prentsaren narratibaz ere badihardu. Dena den, narratologia literarioa eremu emankorra bilakatu da, eta adar zabalduenetarikoa da. (Retolaza, 2008, 589 or.)

Narratologia kontzeptua 70eko hamarkadan sortu zen, literaturaren esparruan. Onega eta García (2014) esan bezala, termino hori kritikari estrukturalistek zabaldu zuten, hala nola, Gérard Genette, Mieke Bal, Gerald Prince eta beste batzuek. Ondorioz, narratologiaren esparrua, gehienetan, narratibaren egitura-azterketara mugatu da.

Hain zuzen, aztergai edo corpus nagusia testu narratiboak izan dira: nobelak, eleberri laburrak, ipuinak, haurrentzako ipuinak, prentsa-artikuluak eta abar (Bal, 2013). Gaur egun, ordea, narratologiak genero eta diskurtso literario eta ez-literario askoren alderdi narratiboak ere aztertzen ditu, hala nola poema lirikoak, ikus-entzunezko produkzioak, teatroak, historia eta iragarkiak. Horrez gain, genero-azterlanetan, psikoanalisian, irakurketa-erantzunaren kritikan eta kritika ideologikoan narratologiarako garapen-ildo berriak ireki dira (Onega eta García, 2014).

Metodologia honek azterketa formala egiteko aukera ematen du, kontakizunaren egitura narratiboetan bereziki zentratua. Azterketa hori, beraz, deskriptiboa da, eta obraren zentzua argitzeko bitarteko gisa baliatzen.

Guzti hori esanda, ikerketa honetan, Lourdes Iriondok haur eta gazteentzat plazaratutako lanen azterketa narratologikoa egin da. Bere obra argitaratu guztia izan da aztergai, nahiz ez den oso obra zabala: *Martin arotza eta Jaun Deabrua eta Sendagile maltzurra* (1973), *Hego-haizearen ipuinak* (1973), *Asto baten malura* (1975), *Buruntza azpian* (1975), *Ipuiak* (1975), *Ortzadarra* (1978), *Lotara joateko ipuinak* (1982).

6. LOURDES IRIONDOREN OBRAREN AZTERKETA

Atal honetan Lourdes Iriondoren figuraren eta bere obraren azterketa jaso da. Horretarako, lau azpiataletan banatu da atala: biografia, obraren esparruak, corpusaren zehaztapena eta bere obraren testuinguru historikoa. Corpusaren azterketa narratologikoaren xehetasunak ikusteko, ikus 1. eranskina.

6.1. Biografia

Lourdes Iriondo Mujika Donostian jaio zen 1937an, baina urnietartzat sentitzen zuen bere burua, zazpi urterekin bertara joan baitzen bizitzera eta han igaro baitzituen haurtzaroko eta gaztaroko urteak.

Hamaika seme-alabetatik bigarrena zen, eta mojen ikastetxeetan ikasi zuen, bere ahizpa nagusiarekin batera, bai Donostian eta bai Urnietan. Ikastetxeak izen onekoak ziren, Lourdesen familiari zegozkion bezalakoak, baina mojak frantsesak ziren, eta ez zuten euskal giro handirik aurkitu, frantsesez hitz egitera behartzen baitzituzten ikasleak.

Jasotako hezkuntzarengatik eta lan egiteko eta edozeini laguntzeko zuen grinarengatik, hemeretzi urterekin *Misioneras Seculares* elkartearen formakuntza etxean sartu zen, hirugarren mundura pobre eta behartsuei laguntzera, misiolari gisa joateko.

Hezkuntza formalaz gain, musika eta kantuarekiko zaletasuna izan zuenez txikitatik, herriko abestalde eta txistulari bandan parte hartu zuen. Ez hori bakarrik, opera eta kantua ikasten ere ibili zen Donostiako akademia batean zazpi urtez. Hala ere, osasun arazoak zirela eta, utzi egin behar izan zuen.

Hogei urterekin ebakuntza azkar bat egin behar izan zioten, *estenosis mitral* bihotzeko eritasunagatik. Ordutik aurrera, jolas, kirol eta esfortzu handiak ekidin eta bere burua zorrotz zaindu behar izan zuen. Bertan amaitu ziren Lourdesen prestakuntza eta hirugarren mundura joateko ametsak.

Gaixotasunaren ondorioz, denbora luzez egon behar izan zuen etxean; orduan, txikitatik maite izan zuen musikagintzan trebatzeko denbora izan zuen. Ebakuntza ostean aitak oparitu zion gitarrak mesede egin zion, hura jotzean gaixotasuna ahaztu egiten zuela esaten baitzuen. Dena den, ebakuntza burutu eta hilabete batzuetara, berriz hasi zen parrokan laguntzen.

Horrela, gitarra jotzen ikasi eta kantu batzuk egin eta prestatzen zebilela, 1964an Andoaino lagun batzuk herriko ikastolarako dirua biltzen zebiltzala, kantatzera joateko eskatu zioten. Hura izan zen jende aurreko lehen agerraldia. Ondoren beste bi herritan

jo zuen (Tolosan eta Villabonan), jendea harrিতuta utzi, eta 1965eko Aizarnako kantaldiaren ondoren etorri zen benetako arrakasta. Publikoa txundituta geratu zen Iriondoren ahots goxoa entzutean eta hurrengo egunean, Loiolako Herri Irratian kanta haietako batzuk grabatu nahi al zituen galdetu zion Joxe Mari Iriondok, Lourdesen lehengusu eta irratiko kazetariak.

Lourdesek baiezkoa eman eta grabatu zituzten lau kanta horiek egunero hiru-lau bider jartzen zituzten irratian. Entzule batzuen kritikak jaso zituen arren, euskal kanturik espainiar gitarrarekin kantatu ezin zela esanez, beste askoren artean harrera ona izan zuen: “irradi-entzuleen iritziz harrigarri ondo kantatzen zuen «aingeru berri» hark” (Joxe Mari Iriondo, 2006, 12 or.).

Nahiz eta gurasoak euskaldunak izan, etxean anai-arreben artean gaztelera hitz egiten zuten eta etxeko euskara ahaztua zuenez, ez zuen bere burua euskaraz konposatzeko gai ikusten. Horrela, Lourdesi lagun edo familiakideek berak sortutako abestietako letrak itzultzen edo moldatzen zizkieten. Euskal kantagintzari ekarpen handiak egin zizkion, euskara eta euskal kulturaren kontzientzia zabaltzeko bide izan baitzen. 1965. urtean 40 bat kantaldi eskaini zituen eta 1967an, berriz, 170 bat inguru.

Garai hartan, baimena eskatu behar izaten zuten emanaldiak ematerako orduan eta zentsura ere pairatu zuen kantaldiren batean. Izan ere, abestiek herriaren problemak adierazi eta mezu garrantzitsuak transmititu behar zituztela esaten zuen. Horregatik, hainbatetan, abesti jakin batzuk kantatzeko baimena jaso edota moldaketak egin behar izan zituen. Oztopoak oztopo, Euskal Herriko herri askotara heldu zen bere musikarekin.

Hainbat ekitalditan parte hartu zuen Iriondok; gainera, gitarraren laguntzaz bakarka abesten zuen emakume bakarrenetarikoa izan zen garai hartan Euskal Herrian. Ondoren, taldean hasi zen abesten, Ez Dok Amairu (1966-1972) taldeko kide eta sortzaileetako bat izan baitzen bera.

Hirurogeiko hamarraldian euskal musika mugimendu berriaren definiziorik zehatz eta argiena, eta gure kantagintzaren jaiotza eta norabideak hobekien finkatu zituen Ez dok amairu izan zen. (Joxe Mari Iriondo, 2006, 17 or.)

Ez Dok Amairuko bileretan hasiera-hasieratik hartu zuen parte, kantaldi asko egin zituen bere taldekideekin eta taldeko idazkari lanak egin zituen, diru kontuak eta kantuetan egin beharreko moldaketak jasoz.

Taldea banandu ostean, Xabier Leterekin eta beste lagun batzuekin abesten ibili zen 1978ra arte; urte hartako maiatzean eman zuen azken jaialdia. Garai hartan aldaketa handiak egon ziren gizartean eta hainbat kantari eszenatokietan deseroso

sentitzen hasi zen. Larrinagaren (2016) esanetan “kantaldiak erritu politiko-sozialak bilakatu ziren, eta kantariak askotan bete nahi ez zuten rola bete zuten; nolabaiteko ibilbidea eta asmo artistiko zintzo eta sendoak zituztenetako batzuek ez zuten aguantatu giro berria”. Horren adibide dira Xabier Lete eta Antton Valverde, eta baita, jakina, Lourdes Iriondo ere.

Ez hori bakarrik, osasunez makal zebilenez, Iriondok eszenatokiak utzi eta herri lanari eskaini zizkion ondorengo urteak. Herriko parrokiak laguntzeaz gain, Urnietako ikastolan lan handia egin zuen, eta baita herriko haurrentzat aisialdiko ekintzak antolatzen ere.

2005eko abenduaren 27an zendu zen, 68 urterekin, bihotzeko gaixotasunaren ondorioz, Donostiako ospitalean.¹

6.2. Lourdes Iriondoren obraren esparruak

Uzta oparoa eskaini zion Lourdes Iriondok Euskal Herriari, 1964tik 1983ra. Hurrengoak izan zen bere diskografia:

- *Maria Lourdes Iriondo*, 1967, Belter diskoetxea (Bartzelona-Madril).
- *Maria Lourdes Iriondo*, 1967, Belter diskoetxea (Bartzelona-Madril).
- *Lourdes Iriondo*, 1968, Belter diskoetxea (Bartzelona-Madril).
- *Kanta zaharrak*, 1968, Belter diskoetxea (Bartzelona-Madril). Resurreccion Maria Azkuek bildutako kantutegitik aukeratutako abesti zaharrak.
- *Aur kantak*, 1969, Herri Gogoa-Edigsa.²
- *Lourdes Iriondo-Xabier Lete*, 1969, Herri Gogoa (Donostia).
- *Lourdes Iriondo*, 1969, Herri gogoa-Edigsa.
- *Lurdes Iriondo*, 1974, Arte y Ciencia (Donostia).
- *Lurdes Iriondo-Xabier Lete*, 1976, Edigsa.

Aipatzekoa da, helduentzako musikaz gain, 1969an haurrentzako musika atera zuela propio. *Aur kantak* diskoan zortzi kanta aurki daitezke: 1. Mox mox, 2. Eragiozu, 3. Bat txardina, 4. Dulun dulun-Zozoak eperrak, 5. Atxia motxia, 6. Nora zoazte, 7. Sarian zun zun, 8. Kukubiku-Don don kandel.

Musikagintzaz gain, antzerkian ere aritu zen. Urnietako Egape ikastolan euskal kantuak, antzerkia, euskal dantzak, plastika eta eskulanak egiten erakutsi zien ikasleei,

¹ Gehiagorako, ikus Joxe Mari Iriondoren “Lurdes Iriondo (1937-2005)”. Bidegileak 44.

² Herri Gogoa izan zen lehen euskal diskoetxea. Hura sortu aurretik, ezinbestean, Bartzelonara edo Madrilera joan ohi ziren euskal kantariak diskoak grabatzera.

eta Urnietako haurrekin antolatu zuen *Buruntza* antzerki taldearekin ere lan handia egin zuen, saioak idatzi, prestatu eta erakutsiz.

Antzerki obra horietako batzuk argitaratuak izan ziren. Gero argitaletxearen “Kimu” sailean, hurrengoak aurki ditzakegu: *Martin arotza eta Jaun Deabrua* eta *Sendagile maltzurra* (Gero, 1973), 1970ean Toribio Alzaga Saria eskuratu zuena, eta *Buruntza azpian* edo *Dena hankaz gorako lurraldea* (Gero, 1975).

Beste batzuk, berriz, helduentzat idatzi zuen *Fabrika berria* satira eta abar, hark utzitako karpeta batean ondo gordeta izango dira, ziur. (Joxe Mari Iriondo, 2006, 22-23 orr.)

Haur eta Gazte Literaturan aipatu behar den beste alorra narrazioarena da. Izan ere, erremu horretan ere hainbat lan eman zituen argitara. Aipaturiko “Kimu” sailean, *Hego-haizearen ipuinak* (Gero, 1973), *Asto baten malura* (Gero, 1975) liburua, eta beste idazle batzuekin batera eginiko *Lotara joateko ipuinak* (Erein, 1982) idatzi eta argitaratu zituen.

Kantagintzaz eta literaturaz gain, aipamen berezia egin behar zaio Lourdes Iriondoren grabaketen esparruari. Izan ere, ohiko testugintzaz gain, haurrekin egindako lanak beste bi eratan ere jaso zituen. Alde batetik, ipuinez osatutako bi disko grabatu eta argitaratu zituen:

- *Ipuiak*, 1975, Herri gogoa-Edigsa.
- *Ortzadarra*, 1978, Herri gogoa.

Beste alde batetik, garai horretan grabatu zituen antzerki obra batzuk bideoan jaso zituen. Egia esan, datarik ez dugu, baina garai horretakoak dira.

Azkenik, azpimarra dezadan Iriondoren obran tradiziozko literaturak duen presentzia handia. Hain zuzen, hala Haur Literaturan nola kantagintzan, euskal tradizioan mantendu diren abestiak eta istorioak bildu eta birmoldatu zituen. Interes eta lan horren lekuko dira, ez bakarrik Iriondok argitara emandako lanak, baizik, halaber, Leteren eta Iriondoren biblioteka pertsonalean zeuden materialak (ikusi 2. eranskinean material horien inguruko zehaztapena).

6.3. Corpusaren zehaztapena

Nahiz eta Iriondok euskal kantugintzari ekarpen handia egin, lan honetan aztertuko dena hark Haur eta Gazte Literaturari eginiko ekarpena izango da. Atal honetan, argitara eman zituen bost liburuak eta haur ipuinez osatuak dauden diskoak jorratuko dira, zehazki.

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, azterketa egiteko aleak eskuratzea zaila izan dela, hainbat arrazoiengatik. Jarraian, lan bakoitza aurkitzeko arazoak aipatuko dira, banan-banan. Izan ere, aurrerago azaldu dudan bezala, arazo horiek Lourdes Iriondoren obrak jasan duen bilakabidearen erakusgarri gertatzen dira.

- *Martin arotza eta Jaun Deabrua eta Sendagile maltzurra*, 1973. Liburutegien katalogoan izenburua sartuta ez dago lortzerik. Liburuaren bizkarrean, *Bi antzerki* jartzen du, seguruenik, izenburua luzea izan eta dena sartzen ez zelako; honek konfusioa sortuko zuen eta *Bi antzerki* bezala jasota dago katalogoan.
- *Hego-haizearen ipuinak*, 1973. Katalogoan ongi erregistraturik dago, eta armiarma.eus-en eskuragarri dago, Lourdes Iriondoren atalean.
- *Asto baten malura*, 1975. Azaleko tipografia argia ez dela medio, liburutegien katalogoan nahasmena dago eta bi eratan jaso aurki daiteke liburua: Asto baten “malura” (2 ale) edo Asto baten “maluza” (5 ale).
- *Buruntza azpian*, 1975. Liburutegi katalogoan bi urtetako liburuak aurki daitezke: Batetik, 1975ekoak, lehenengo inprimaldikoak; eta, bestetik, 1979koak, bigarren inprimaldikoak. Horrela, bada, nahasmena dago: web orri batzuetan, *Buruntza azpian* 79an argitaratua dela jartzen du, baita Xabier Etxanizek (2012) eta Amaia Alvarezek (2015) egindako komentarioetan ere.
- *Lotara joateko ipuinak*, 1982. Bidegileak eta armiarma.eus-en 1983.urtean publikatua dela jartzen du, baina datu hori okerra da: kredituetan adierazten da 1982koa dela. Horrez gain, liburutegian lortzeko oztopoak izan dira, ia liburutegi guztietan “xahututa” baitago.³ 10 ale izan dira xahutuak zehazki.
- *Ipuiak*, 1975. Alea eskuratzea ezinezkoa izan da momentuz. Dena den, diskoko bigarren ipuinaren makinizkribua lortu da eta horrekin egin da deskribapena.
- *Ortzadarra*, 1978. Ezin izan da ale fisikorik eskuratu, baina badok.eus-en diskoak zekarren liburuxkaren bost orrialde aurki daitezke PDF formatuan eta Youtube plataforman osorik entzuteko aukera dago.

6.4. Lourdes Iriondoren obra eta testuinguru historikoa

Haur literatura haurra izaera propiodun izaki gisa hartzen den momentutik sortzen da; bada, haren sorkuntza XVIII. mendean koka daiteke. Alabaina, XIX.

³ Liburuzainek, haien katalogoan liburu bat bilatzean, “X” hizkia ikusteko aukera dute liburutegietan; hizkiak liburua “xahututa” edo “expurgado” dagoela adierazten du. Horrek zera esan nahi du, liburua oso egoera txarrean zegoenez, bota egiten dutela.

mendearen hasierara arte, ez zen haurrentzako idatzitako euskarazko libururik plazaratu; horregatik esan daiteke, beste herrialde batzuekin konparatuz, Euskal Herrian, atzerapen pixka batekin heldu zirela haurrentzako obra bereziak.

1804an Bizenta Mogelek *Ipui onac*, euskaraz haurrentzat idatzitako lehen liburu literatur-didaktikoa argitaratu zuen, Europa osoan zabaldurik zegoen «instrurir deleitando» (Samaniegok zioen bezala) korrontearen barnean, eta era berean antzinatik zetorren alegien zaletasun eta irakas nahi horren ildotik. (Etxaniz, 1997, 26-27 orr.)

Ondoren, hainbat egile etorri ziren, baina Mogelen antzera, idatzitako ipuin guztiak baserri giroan bizi ziren haur euskaldunentzat moralitatez eta didaktismoz betetakoak izan ziren.

Nahiz eta ipuin horiek berandu argitaratu, Euskal Herrian ahozko literatura garrantzitsua izan delako isla ditugu ondoren egin ziren bilketa ugariak. Europan zehar abertzaletasuna eta nazioa eraikitzearen aldeko sentimendua sendotzen hasi zirenez, garai horretan herri ipuinen ugaritze eta zabaltzea gertatu zen.

Wendworth Webster-ek Ingelesez argitaratzen du "Basque Legends", 1877an. Euskal folklorearen biltzaile diren bi maisu handiak Resurrección María de Azkue eta Jose Migel Barandiaran, XX. mendearen hasieran hasi ziren folkloreko materialak biltzen eta ia-ia betiko galtzeko zorian zeuden ipuin eta narrazio herrikoiak jasotzen. Ipar Euskal Herrian ere izan ziren ipuin herrikoiaren biltzaileak, hala nola, Jean Barbier 1924-1931, Mayi Ariztia 1934 eta "Oxobi" Jules Moulrier, umeentzako alegiak eta olerkiak idatzi zituen 1926 eta 1944 urteen artean. (Zubeldia, 2011, 194 or.)

Jasotako ipuin, abesti, esaera eta jolasek, eta horien transmisioak, eragin nabarmena izan dute zenbait idazleren lanetan. Idazle horien artean dago, ikusiko dugun bezala, Lourdes Iriondo.

Dena den, arestian aipatu bezala, nahiz eta haurren irudia presente izan, haurrentzako liburuak helburu didaktiko batekin eginak izan ziren. Horrela, foruen galderen ondoren (1876) sortutako euskal pizkundea oso garrantzitsua izan arren, ikuspegi kultural orokorrari begiratuz gero, euskal haurrek ezin izan zuten kalitatezko literatura obrarik irakurri XX. mendearen hasierara arte, hau da, sentimendu nazionalista indartu eta lehen ikastolen sorrerara arte.

6.4.1. HGLren lehenengo urratsak

Aldaketa ez zen bat-batekoa izan, oraindik gai tradizionalak, baserri giroa eta moral katolikoa jorratzen ziren obra gehienetan. Hala ere, urratsak eman ziren eta lehenengo lan modernoak argitaratu ziren.

Aldaketa horretan pisu handia izan zuten aldizkariak, idazleen lanak plazaratzeko toki eskaintzeaz gain, irakurleak sortzeko lehen urratsa baitziren. 1897an R. M. Azkuen *Euskalzaile* aldizkaria sortu zuen, eta horren ondoren *Ibaizabal*. Aldizkari horietan argitaratu zituzten beren lanak Tx. Agirrek, Kirikiñok, Urruzunok eta beste idazle batzuek. (Etxaniz, 1997, 63 or.)

Aldizkariak gain, 1918an Sociedad de Estudios Vascos eta Euskaltzaindia sortu ziren eta euskal kultur mundua suspertzen lagundu zuten.

Oro har, lehenengo ikastolen sorrerak ere lagundu zuen haur literaturaren suspertze horretan. XX. mendearen hasieran, bultzada handia izan zuen haur liburugintzak; haurren heziketarako ia libururik ez zegoela eta, liburu kantitate handia argitaratu, argitaletxe batzuk sortu eta kanpoko obrak euskarara itzultzen hasi baitziren. Oro har, nazionalismoa, euskararekiko maitasuna eta kristau erlijioa izan ziren jorratu ziren gaiak.

Literatura sorkuntza prozesu horretan aipatzekoa da Tene Mujikak 1922an kaleratutako haurrentzako lehen antzerki liburua, *Nekane edo Neskuntzaren Babesa*. 9 eta 12 urte arteko haurrentzat eginiko antzerki laburra. Ezin aipatu gabe utzi, halaber, Lopez Mendizabalen haurrentzako irakurgai eta testuliburuak; aipagarriena, *Xabiartxo*.

Garaitsu honetan agertzen dira Isaka López Mendizabalen liburuak ere, bereziki *Xabiartxo* (1925), Euskal Herriko eskola liburuen artean luzaroan bidea ireki zuena. Liburu honek berrargitalpen ugari izan ditu eta duela gutxi arte oinarritzko liburua izan da gerra ondorengo ume euskaldunen alfabetizaziorako. (Zubeldia, 2011, 195 or.)

Sortutakoez gain, bada irabazitako literatura ere, nazioartean gertatu bezala, helduentzat idatzitako euskarazko obra batzuk euskal haur eta gazteek bereganatu baitzituzten. Horren adibide dira Kirikiñoren *Abarrak* (1918), irakaspenez beteriko 21 ipuin labur, euskaraz irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, edo Gregorio Mujikaren *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi eta gertaerak* (1927), nekazal munduan giroturiko baserriar baten istorioak, erromantizismoz eta ahozko tradizioaren arrastoz beteak.

Ahozko tradizioa hurrek era askotan jaso zuten, herri ipuinen bilketak ere beraiek bereganatu baitzituzten.

XIX. mendeko erromantizismoak bultzaturik, euskal nortasuna bilatu nahian edo euskal kulturaren sustraietara iritsi nahian, herri ipuinen eta folkloreaken ikerketak egin ziren XIX. mendean, baina batez ere XX. mendeko lehen erdian. Ikerketa horien ondorioz ipuin bilduma zenbait argitaratu ziren, baita haurrentzako ipuin solteak ere. Horietako bi, *Dar-Dar-Dar* eta *Txomin Arlote* 1929an plazaratu ziren. (Etxaniz, 1997, 86 or.)

Sortutako eta irabazitako lanez gain, itzulpenak ere badaude. Garai horretan, hainbat hizkuntzatatik euskarara idazlan zenbait itzuli ziren. Aipagarriak dira, adibidez, O. Wilderen (1927) idatziak, Grimm anaien ipuinak (1929) edota Croceren (1932) lanak. Itzulpen batzuetan, erromantizismoaren ondorioak ikus daitezke, baina baita idazle batzuen helburu moralizatzailea ere. Itzulpenek kalitatezko literatura ekarri zuren euskarazko literaturara, obra batzuk originalak baino hobeak izan baitziren.

Dena den, Espainiako 1936ko gerrak eta ondorengo Bigarren Mundu Gerrak eragina izan zuten euskal literaturan. Herrialdea pobretuta geratu zen eta frankismoak euskal giroari ekarri zion errepresioak bertan behera utzi zuen ordura arte euskal kulturaren eginiko lan guztia, Haur eta Gazte Literatura barne.

6.4.2. 36ko gerraren ondoren, ezer ez

Espainiako 36ko gerra frankistek irabazi ondoren (1936-1939), euskal HGLren sustraiak eten egin ziren. Idazle asko hil eta beste asko erbestera joan ziren; horrez gain, euskaraz hitz egiteko debekua ezarri zenez eta errepresioa egon zenez, liburuak idazteko eta argitaratzeko zailtasunak ez ziren gutxi izan.

1936ko guda haur literaturgintzarako atzerapauso ikaragarria izan zen. Eta Euskal Herrian zer? Euskal Herrian bat-bateko lurraldetasun galera zela eta, ez zen haur libururik plazaratu urte horietan.[...] Hegoaldeko euskaldunok diktaduraren atzaparrak sentitu genituen, "euskal" zen guztiaren kontrako errepresioa, herritarren eta kulturaren kontrako zapalketa. (Etxaniz, 1997, 125 or.)

Euskaraz idaztera ausartu ziren batzuk, liburu erlijioso edota moralen itxuran, baina gorabehera eta zailtasun ugari pasa behar izan zituzten lan horiek argitaratzeko, garaiko zentsurarengatik. Ezer gutxi egin zitekeen; dena den, Iparraldetik eta atzeretik, bertara erbesteraturiko euskaldunen bidez, euskarazko lan batzuk etorri ziren 40ko

hamarkadan. Egoera horretan, ulergarria da euskal literaturak oro har eta HGLk konkretuki garai horretan izan zuten argitalpen eskasia.

Diktadura frankista hastapenetik jabetu zen HGLk duen botere doktrinatzailiaz, eta berau gaztetxoek eskura zuten baliabide bat izatea ez zen oharkabeen pasa agintari politikoentzat. Idatzizko obretan islatzen ziren portaera, jarrera eta balioak haurrek oharkabeen barneratzen zituztela jakinda, erabat kontrolatutako eta gidatutako literatura sustatu zen, Erregimenaren beraren interesak etengabe zainduko zituen. (Fernandez, Urzelai, eta Villagran, 2022, 124 or.)

1941etik aurrera, zentsura hori ez zen soilik Hego Euskal Herrian pairatu, Espainian osoan zehar baizik. Eta idazleen askatasuna mugatzeaz gain, liburuetan landu beharreko gaiak eta horien helburuak zehaztu eta kontrolatu ziren.

Gai aldetik, tratamendu aldetik, atzera egin zuen literatur lanak. XIX. mendera itzuli zelarik. Gerra aurretik eginiko aurrerapenak deuseztaturik geratu ziren; literaturaren erabilera hezitzaile-ideologikora bueltatu zen, instrumentalizaziora.

Hegoaldean, euskararen kontrako errepresioa zela eta, bizi izandako garai ilun eta zail horren antzekoa bizi izan zen estatu osoan; ez hizkuntz arazoengatik, ideologi kontuagatik baizik. (Etxaniz, 1997, 135 or.)

Etxanizek dioen moduan, haurrak kristautasunean hezteko obrak irten ziren, mende hasieran egin bezala. 1948an Manuel Lekuonak *lesu Aurraren Bizitza* argitaratu zuen, gerra ostean Hego Euskal Herrian haurrentzat kaleratutako lehen liburua; 1950an, berriz, Nemesio Etxanizek *Kristau-Ikasbidea Bertsotan*, kristautasuna eta euskalduntasuna elkarrekin lotuz.

1952 eta 1955 urteen artean, Espainian aldaketak hasi ziren gertatzen. Gerra ondorengo zapalketak bigundu eta "liberación intelectual" delakoa edo askatasun intelektuala ematen hasi zen.

Plazido Muxikak 1952an Jon Svenssonen *Noni eta Mani* liburua euskaratu zuen. Abentura eta ekintzez beterik zegoen, baina jarrera didaktikoa eta jesuiten aldekoa ere igarri zitekeen. Garai honetan hasi zen umore ukitua sumatzen obra batzuetan. Liburu hau "Kuliska sorta"-ko lehenengo liburua izan zen eta sorta honek aldaketak ekarri zituen, gai eta estilo ezberdinetako argitalpenengatik.

Euskaraz argitaratutako lan garrantzitsuenak Itxaropena argitaletxean kaleratu ziren.

Euskal Herrian ez zen 1950eko hamarkadara arte iritsi euskarazko lanen berrinprimaketa: batez ere Itxaropena argialetxeari zor zaio lan hori. 1932an sortua zen Itxaropena Zarautzen, baina Gerra Zibila piztuta eten egin zuen jarduna. Itxaropenako editoreek hildako euskal autore batzuen edizio berriak prestatu eta beste batzuk argitaratu zituzten: lan gehienak "Kuliska" bilduma xumean agertu ziren. (Ibarluzea, 2019)

50eko hamarkadan, aipatzeko figura da, Yon Etxaide ere. 1950ean *Alos-Torrea* gazteentzako nobela argitaratu zuen, legenda bat oinarri hartuta baina errealismora hurbilduz, eta 1953an *Purra! Purra!* haurrentzako liburua, umorez, txistez eta engainuz josia, irakurleari irribarrea ateratzeko.

Euskal literaturan liburu gutxi zeuden eta Haur eta Gazte Literaturan oraindik ere gutxiago; baina hamarkada horretan Euskaltzaindiak euskal liburugintzarengatik lan egin zuen liburuak plazaratzen, sariak ematen eta abar.

Era horretan argitaratu zen euskaraz idatzitako lehen liburu poliziakoa, 1955ean: *Hamabost egun Urgainen*.

Nobela honek ez zuen berrikuntzarik ekarri literaturaren mundura, baina bai euskal literaturara. Jose Antonio Loidiren nobela honek euskararen inguruan zeuden zenbait topiko apurtzeko balio izan zuen, euskaraz ere nobela modernoak egin ahal zirela erakutsiz. (Etxaniz, 1997, 152 or.)

Hain arrakastatsua izan zen nobela, berrargitalpenak egin ziren: 1958an gaztelaniaz eta 1961 katalanez (huraxe izan zen euskarazko lan baten katalanezko lehenengo argitalpena).

Bigarren Mundu Gerraren ondorioak gutxitzen joan ahala eta herrialdeko egoera ekonomikoa hobetuz joan ahala, kulturalki ere aldaketak gertatu ziren eta, nola ez, Haur eta Gazte Literaturan ere bai. Euskarazko lanak ere hazi egin ziren.

Nazioartean Haur Literaturaren errebindikazioa egin zen: Haurrentzako liburua eta horren inguruko ekintzak eta ikerketa bultzatzeko, 1955ean, UNESCOren babespean International Board on Books for Young People, IBBY, erakundea sortu zen.

Gure eremura etorrira, 1957an Yon Etxaideren *Pernando Plaentxiarra* argitaratu zen; bi urte geroago, Felix Bilbaoren *Ipuin barreka*, eta urtebetera Juan San Martinen *Zirikadak*. Umorezko liburuek irakurleak erakarri zituzten liburuetara, irakurtzeko ohitura ez zuten horiei gozamen momentuak eskainiz.

1959an *Umeen Deia* aldizkaria sortu zuen Felipe Murietak. Aldizkari horrek euskarazko haur prentsarako bidea ireki zuen, eta baita haurren parte hartzea ere, Gipuzkoako, Nafarroako, Bizkaiko, Arabako zein erbesteturiko haurrek kolaboratu baitzuen bertan.

50eko hamarkadaren azken urteetan Euskal Herriko egoera literarioa berpizten hasi zen. Euskararen egoera normalizatzen hasi zen, irakaskuntzan aldaketak gertatzen hasi ziren, eta aldaketa horiek, haurrentzako produkzioaren eta jorratzen ziren gaien ugaritasuna ekarri zuten.

6.4.3. Euskal kulturaren aldeko mugimendua

60ko hamarkadan, Europako egoera ekonomikoak hobera egin zuen. Gainera, Espainiako erregimenak, bere irudia zuritu nahirik, aperturismo moduko bat bizi izan zuen Europarekiko. Giro horretan, aldaketa kulturalak izan ziren eta, IBBY erakundearengatik eta lehen ikastolen sorrerarengatik, Haur eta Gazte literaturak bultzada izan zuen.

Euskal Herrian bestelako egoera genuen; gai aldetik oso aurrerapen txikiak egin ziren eta, hala ere, euskal haur literaturaren hasiera urte horietan dugu. Kantitate aldetik, bestalde, apal samar hasieran, haurrentzako liburuak gero eta ugariagoak ziren; 60ko hamarkadan banaka batzuk plazaratu baziren, 70ekoan, aldiz, estatu espainolean bezala, ugaritze nabarmena gertatu zen. (Etxaniz, 1997, 165 or.)

Gerra osteko lehen ikastolak martxan jarri zirenean, irakaskuntza zentro horiek aurre egin behar izan ziren euskarazko material didaktiko eta literario ezari. Horregatik, irakasleek aparteko lan pertsonala egin behar izaten zuten testuak egokitzen, ahozko tradizioko lanak biltzen, materiala itzultzen edo sortzen...

Bestalde, 1960ko hamarkadan hasi ziren lehen ikastolak, irakaskuntza osoa euskaraz ematen zutenak, hasiera batean elizaren babesean, katekesia irakasteko bilgune bezala. Euskarazko materialen behar izugarria zegoen eta hainbat egile Perrault, Hans Christian, Andersen eta Grimm anaien ipuinak eta Fedro eta Esoporen fabulak itzultzen hasi zen. Eta aldi berean, Resurrección María de Azkue eta Joxe Migel Barandiaranek bildutako euskal folkloreko ipuinen egokipenak egin ziren. (Zubeldia, 2011, 200 or.)

Azken horiek izan ziren XX. mendeko euskal ikertzaile handienetarikoak, baina herri ipuin tradizionalen bilketa egin zuen Julene Azpeitia ere aipatu beharra dago.

Amandriaren altzoan liburuan, entzundako istorioak, mitologiakoak eta askotariko gertakariak batu zituen, hartzaile haurrak gogoan hartuta.

Dena den, aldaketa Marijane Minaberrik ekarri zuen. Idazle hori 60ko hamarkadako haur literaturako idazle garrantzitsuenetariko bat kontsideratzen da. 1963an *Itchulingo anderea...* ipuina argitara eman zuen, eta 1965ean *Xoria kantari* poesia liburua. Irakurgai didaktikoak albo batera utzi eta irakurtzeak ematen duen gozamina bultzatu zuen. Etxanizen esanetan (1997), lan biak zainduak dira; haurrentzat izanik, kalitateari eusten dioten produktuak.

Jakina da 60ko hamarkadan zehar (baita aurretik ere kasuren batean) haize berriak jo zuela euskal literatura, idazle gazteen eskutik; izan ere, aurreko molde gehienak hautsi eta euskal literatura eraberritzea ekarri zuten. (Zuloaga, d.g.)

1963an La Galera argitaletxea sortu zen Bartzelonan. Haur liburugintzan bakarrik aritzen zen eta argitalpenak ez zituen katalanez soilik egin. Horren adibide da 1966 eta 1967an argitaratutako "Oyalzabal" saila. Sail horretan askotariko gertaerak eman ziren argitara haurrek ikasteko asmoz.

Esan daiteke 60ko eta 70eko hamarkaden artean Haur eta Gazte literatura gerraren aurreko egoerara itzuli zela, sormenezko lanak ugaritu egin baitziren. Egileen artean, aipatzekoa da Nemesio Etxaniz. 1967an *Lur berri billa liburua* plazaratu zuen; bertan, ipuinak, olerkia, abestiak eta haur antzerkiak agertzen ziren.⁴

Nemesio Etxanizek literatur lan serio eta sakona eginez, korrante berriak, lur berriak, euskal literaturara ekarri, nahiz, haur eta gazte literatura duina plazaratu zuen. Iparraldean Minaberryk edo Etcheparek egin zutenaren antzera, Hegoaldean ere duintasuna ekarri zuen haur literatura arlora. (Etxaniz, 1997, 186 or.)

1965 eta 1970 bitartean, mugimendu handia zegoen euskal gizartean. Hainbat gertakari egon ziren kulturgintzan: euskara batuaren sorrera (Arantzazuko biltzarraren ostean, 1968), alfabetatzea eta ikastolen sorrera hainbat lurraldetan, euskal kantagintza berria (urte horietan sortu zen Ez Dok Amairu taldea), Euskal Liburu eta Diskoen Durangoko Azoka.

Euskararen irakaskuntzak eta euskaldunen alfabetizazioak izan zuen gorakadarengatik, euskal literatura hazten hasi zen, eta produkzio zein tiradak handitzen.

⁴ 1922tik, lehenengo haur antzerki lanetik obra honetara, ez zen beste antzerki lanik plazaratu.

Eraberritze eta mugimendu horrekin batera, euskal argitaletxe berriak sortu ziren, euskarazko argitalpenak sustatzeko asmoz. Hainbat editorial: Etor (1972), Mensajero (ondoren, Gero eta Erein), Lur (1969), Luis Haranburu Editor (1975). (Zuloaga, d.g.).

6.4.4. Argitaletxe berriak, “Kimu” saila eta Lourdes Iriondoren ekarpenak

Mensajero etxea, 1970ean, euskal egileen lanak eta euskarara ekarritakoak argitaratzen hasi zen. 1972an, argitaletxe autonomo bilakatu zen Etor. Mensajerok, Gero izena hartu zuen 1973an eta “Gero-Mensajero” zigilupean jarraitu zuen euskarazko lanak argitaratzen.

Euskal Herriarekin lotutako ehun lan baino gehiago argitaratu ziren, literatura, historia, geografia, folklorea, hizkuntzalaritza edo antropologia bezalako alorrak landuz. Literaturaren eremuan, Xabier Lete, Orixe, Mikel Zarate, Anjel Lertxundi eta Joan Mari Irigoienek lanak kaleratu ziren garai hartan. Lourdes Iriondok, berriz, Haur eta Gazte literaturan garrantzitsua izan zen “Kimu” sailean hartu zuen parte.

“Kimu” sailak hamabi urtetik aurrerako irakurleentzako narrazioak bildu zituen, euskaraz idatzitakoak zein itzultitakoak (London, Verne, Melville eta Kipling bezalako klasikoenak, adibidez). “Kimu”-n argitaratu ziren, halaber, Zarauzko eta Elgoibarko ikastoletako ikasleen idazlanekin osatutako bildumak, *Haurra ipuin denean* eta *Izarren begietan* izenburupean.

Mensajero argitaletxeak plazaraturiko “Kimu” sailean garaiko pedagogia sortzaile eta parte-hartzailearen eragina nabari zen bezala; ageri-agerian zegoen testuen ezari edo beharrari aurrera egin nahia. Ikasteko irakurgaiak, irakaskuntzako testuak, Euskal Herriaren kontzientzia hartzeko liburuak... eta urte luzeetan izandako gabeziei erakusteko gogoia ikusten da liburuetan. (Etxaniz, 1997, 204 or.)

Lourdes Iriondok hiru liburu plazaratu zituen sail honetan: saileko bigarren liburua, *Martin Arotza eta Jaun Deabrua* eta *Sendagile Maltzurra* (1973), laugarrena, *Hego-haizearen ipuinak* (1973), eta hamabigarrena, *Buruntza azpian* (1975)⁵.

Horrez gain, ezin da ahaztu garai horretan plazaratutako *Asto baten malura* (1975) liburua ere.

⁵ Xabier Etxanizen liburuan (1997) eta komentarioan (2012) data ez dago ongi jaso, 79koa dela baitio; Amaia Alvarezren komentarioan (2015) ere hala gertatzen da. Egiazki, 79koa bigarren inprimaldia da.

6.4.5. Diktaduraren ostean

Arestian esan bezala, beharrak eraginda, ikastolak haurrentzako liburugintzaren bultzatzaile bihurtu ziren. Irakurgai didaktikoetatik at, haurra irakurketaz gozatzeraz eramaten zuten obrak sortzen hasi ziren. Hala ere, diktaduraren amaierara arte ez da aldaketa nabarmenik ematen euskal HGLn.

Diktadorea hiltzean, euskal gizarteak aldaketa politiko eta sozial nabarmenak bizi izan zituen. Ikastoletako ikasleen kopurua nabarmen handitu zen. Ez hori bakarrik, 1979an Autonomia Estatutua onartu zen eta hiru urte geroago, ikasle guztiek euskaraz ikasiko zutela arautzen zuen Elebitasun dekretua.

Gertaera horien ondorioz, euskarazko Haur eta Gazte Literaturak hazkuntza izan zuen; literatura testuak eta helburu didaktikodunak bereizten hasi ziren eta irakurleak aukera zabalagoa zuen gai aldetik. *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1983)* liburuan jaso bezala, “1975-1983 urte bitartean zentsuratik pasatako HGLko obra guztietatik erlijio materialak eta doktrinak gutxiengoak dira, eta narratiba testuak dira gailentzen direnak” (Fernandez, Urzelai, eta Villagran, 2022, 128 or.).

Dena den, hazkuntza hori ez zen bat-batekoa izan. Liburuen eskaera oso handia zen eta euskal argitaletxeek ezin zioten eskaera kopuru horri erantzun. Guztiz adierazgarria da Joan Mari Torrealdai emandako azalpena:

Euskal liburuaren produkzioak ez du zirkinik egin, egoera berriaren eraginez. Zentsuraren ezabatzearen fruiturik ez da nabaritu, kasutxo bat edo beste salbu. Argitara ezinik zegoen libururik apenas atera den (L. Haranburu Altunaren *Gernika* drama eta Salvatore Mitxelenaren *Erri bat Guruzbidean* drama, salbuespen ohoragarriak dira). Baina okerrago dena: zentsurapean argitaragarri ez zen moduko libururik ere ez da atera. Ondorio pare bat argitan gelditu da honekin. Bateko, euskal idazleak ez duela libururako betarik edo erraztasunik; eta besteko, euskal editorialeek ez dutela arintasunik egoeraren aldakuntzari derrefenteko batetan erantzun ahal izateko. Euskal liburugintza motela da, gertakaritik urruti kokatzen da, beranduegi dabil. (1978, 104 or.)

Izan ere, zentsurak jarraitu zuen. Arestian aipatu bezala, HGL etorkizuneko herritarren doktrinamendurako propaganda bezala ulertua zenez, “haurrei eta gazteei zuzendutako oro arreta bereziz aztertua zen, haien heziketan eta, ondorioz, erregimenaren jarraipenean izan zitzakeen ondorioengatik” (Fernandez, Urzelai, eta Villagran, 2022, 119 or.). Horregatik, 1975-1983 epealdian euskal HGL “zentsuraren

«erresistentzia gune»” (op. cit., 172 or.) bilakatu zen eta “helduen literatura ez bezala epaitu” (op. cit., 173 or.).

70eko hamarkadaren amaieran, hiru argitaletxe garrantzitsu sortu ziren: Hordago, Elkar eta Erein; eta eskaerei erantzun hobea eman zitzaien.

1979. urte horretan, Hordago argitaletxeak haur eta gazteentzako bilduma bat plazaratu zuen: «Tximista» saila. Bertan itzulpenak nagusi baziren ere, bost sorlanek ikusi zuten argia, Txomin Peillenen hiru ipuin liburuk eta Jon Etxaide-lhartan bi nobela historikok: *Eneko Agerroa* eta *Usoa Alostorreko*. (Etxaniz, 1997, 238 or.)

Nahiz eta urte gutxian haurrentzako liburu asko argitaratu, krisialdiarengatik, desagertu egin zen argitaletxea. Elkar eta Erein argitaletxeek, aldiz, Euskal Haur eta Gazte Literatura sustatzen jarraitu dute gaur egun arte.

Gero-Mensajeron aritutako lantalde batek Erein argitaletxea sortu zuen Donostian; Julen Lizundia, Anjel Lertxundi eta Antton Olariaga tarteko. Gaur egun, Euskal Herrian dugun argitaletxe handienetakoa da.

Aipatzekoa da Ereinek 1978an sortu zuen *Ipurbeltz* aldizkaria. 1966an sortu zen *Kili-Kili* haur aldizkariarekin batera (garai horretan zentsuratua izan baitzen, eta 1979an kaleratua berriz), eta euskarazko haurrentzako komikigintzari bultzada eman zion.

Kili-Kili aldizkariak *Ipurbeltz* bere anaiari ematen dio ongi etorria lehen ale horretan, izan ere garai beretsuan, 1978an, plazaratu baitzen Erein argitaletxearen eskutik euskal haur eta gazte aldizkari ezagunena: *Ipurbeltz*. [...] Alde horretatik, *Ipurbeltz*-ek euskal komikigintzaren eta ilustrazioaren sorreran eragin handia izan zuen. Jesus Lucas, Antton Olariaga, Jon Zabaleta, Gastón, Hernandez, Berzosa eta abar aldizkari horretatik pasa baitziren. (Etxaniz, 1997, 212 or.)

Garai horretakoak dira Iriondoren ipuinen grabaketak: *Ipuiak*, 1975ekoa, eta *Ortzadarra*, 1978koa. Formatu berriak erabili zituen, Haur Literaturan ordu arte ezohikoak izan ziren baliabideak: ipuinak audioan grabatu zituen ikasleekin, eta antzerkiak bideoan.

1980ko hamarkadaz geroztik, euskal HGLn aldaketa handia eman zen. Argitaratutako liburuen kopurua handia izan zen, hau da, aldaketa kuantitatiboa izan zen alde batetik. Bestalde, garapen kualitatiboa gertatu zen eta hori izan zen

garrantzitsuena; irakurle ezberdinengana gerturatu zen literatura, eskaintza erakargarri eta interesgarriarengatik.

1980tik aurrera euskal haur eta gazte literaturak indarra hartzen du, egileak ugarituz eta gure obra batzuentzako nazioarteko aipamenak lortuz. (Zubeldia, 2011, 201 or.)

Idazleen aldetik emandako aldaketa ere aipatu beharrea aurkitzen gara. Haur eta gazte literatura duina, kalitatezkoa egin baitzuten, gai eta estilo aldetik berrikuntzak ekarriz literatura esparru honetara. (Etxaniz, 1997, 243 or.)

Esan beharra dago, idazlan modernoetatik at, jarraitu zutela obra klasiko eta tradizionalak argitaratzen ere, eta baita herri ipuinen bilketak egiten ere.

Garai horretan plazaratu zuen Lourdes Iriondok *Lotarako joateko ipuinak* (1982), bere azken lan argitaratua; Asun Balzola, Elena Gonzalez eta Anjel Lertxundirekin batera.

7. EZTABAIDA

Lehenik eta behin, “Corpusaren zehaztapena” atalean aipatutakoa azpimarratu nahiko nuke. Alde batetik, Iriondoren lanak erregistratzerako orduan egon diren errakuntza eta nahasmenak, eta, bestetik, liburutegietan azken urteetan bota diren aleek (liburutegi sarean xahututa agertzen baitira ale ugari), aztergaiak lortzeko zailtasunak ekartzen dituzte. Ez hori bakarrik, corpusaren egoera nahasiak zaildu egiten du ikerketa, eta akatsak ageri dira Iriondoren obra aztertzeko ardura hartu duten ikertzaile gutxien lanetan. Zailtasun horiek guztiak, Lourdes Iriondoren irudiaren ahanzturaren beste froga bat dira.

Behin hori esanda, obraren edukian jar dezakegu fokoa.

Hasteko, idazleak argitaratutako bi antzerki liburuetan (*Martin Arotza eta Jaun Deabrua eta Sendagile maltzurra* eta *Buruntza azpian* lanetan), oharren atalean, antzerkiaren erabilera pedagogikoaz hitz egiten du Iriondok. Zenbait ikerketetan aztertu dira hezkuntzan ahozko adierazpena eta dramatizazioa erabiltzearen onurak:

Dramatizazioa hezkuntza-baliabide gisa erabiltzeak irakaskuntza-ikaskuntza eredu motibatzaile bat erabiltzea ekar dezake, ezagutza jasotzeko giroa aspergarria eta monotonoa izan ez dadin. Era berean, ikasleak modu ludiko batean gogoz jartzen ditu dramatizazioak, eta alderdi psikologikoak, emozionalak, psikomotorrak, sozialak nahiz sormenezkoak garatzen laguntzen du. Gauzak horrela, dramatizazioa baliabide pedagogikotzat hartuta, konstruktibismoarekin, interakzionismoarekin eta deskubrimenduaren bidezko ikaskuntzarekin erraz lot daiteke gelako jarduna (Argüelles eta Zelaieta, 2015).

Buruntza azpian lanaren hasierak, gainera, Iriondoren lan egiteko eraren hainbat pista ematen dizkigu. Lanen sorkuntza prozesuaren inguruan hitz egiten du eta hurrek hainbat gauza erabakitzen dituzte taldean (xehetasunak 1. eranskinen 4. puntuan).

Hain zuzen, Etxanizek (1997) aipatzen du garai hartan indar handia zutela Piaget, Freire eta Freineten ideiek, eta garrantzi handia ematen zitzaiela neska-mutilen parte-hartzea bultzatzen zuten ekintzei. Askatasuna ematen zitzaien libreki produzitzeko: ipuinak idatzi, marrazkiak egin, etab., gaiak ematean haien irudimena mugatzeko beldurrez. “Dinamika horren ondorio izan ziren hurrek beraiek egindako liburu batzuk” (Etxaniz, 1997, 202 or.), baina, Etxanizekin bat eginez, esan behar da lan horiek ezin direla estuki literatura kontsideratu. Iriondoren obrara etorrira, ezin esan liteke aukera horri heldu zionik estu-estu, eta hain zuzen Etxanizek berak aparteko lekua ematen dio; hala ere, testuen azterketan ikusi den bezala, hurrekin lan egitearen

ondorio den forma testuala dute Iriondoren *Buruntza azpian* eta *Martin Arotza eta Jaun Deabrua eta Sendagile maltzurra* antzerki testuek.

Ipuiak eta *Ortzadarra* diskoek ere aipatutakoa bermatzen dute. Haurrekin lan egin zuen, baina baita haurrentzat ere, azken disko horren liburuxkaren hasieran idazleak aipatzen duen bezala (ikus 1. eranskineko 6. puntua).

Publikoari edo irakurleari zuzentzea ere bada Iriondoren beste bereizgarri bat. Etxanizek ere aipatzen du *Buruntza azpianen* komentarioan: “bere idazlan guztietan, entretenimendurako eta haurrentzat irakurgairik ez zegoen garai hartan, testu erakargarri eta atseginak eskaintzeko asmoa ikusten da. Horretarako, irakurlearengana hurbiltzen da, zuzenean mintzo zaio” (2012, 105-106 orr.).

Iriondok balorea ematen dio tradizioari eta haren transmisioari. Hori dela eta, ahozko tradizioko materialak eta abestiak txertatzen ditu testuan; literaturaren onerako ez, baizik transmisioaren onerako. Horri lotuta bada Iriondoren hainbat obratan (*Martin Arotza eta Jaun Deabrua eta Sendagile maltzurra* eta *Hego-haizearen ipuinak* lanetan) errepikatzen den ideia edo gai bat: telebistari kritika. Aparailu horri botatzen dio garaiko haurrek tradiziozko ipuinak eta abestiak ez ezagutzearen errua.

Hainbat gai jorratu zituen Iriondok bere lanetan. Batetik, natura eta ekologia lantzen dira. Gizakiok eraikuntza larregi egiten dugula, eta gure ingurua eta ekosistemak zaindu behar ditugun aldarria egiten du *Hego-haizearen ipuinak* liburuan. Bestetik, lehenago aipatutako abesti eta ipuin tradizionalen transmisioari lotuta, baserri giroa eta euskal mitologiaren gaiak ere lantzen ditu.

Horiekin batera, zaharra/berria edo tradizioa/modernitatearen arteko talka ere azaleratzen da bere literaturan. Hain zuzen, Etxanizek *Asto baten malura* lanaren inguruan argi adierazten du “berrikuntzaren beharra eta ohitura zaharren borroka bizirik iraun nahian” (1997, 227 or.), baita Alvarezek ere *Buruntza azpianen* inguruan: “aldaketa garaia da, krisia dago tradizioa eta modernitatearen artean, eta hori oso ondo irudikatzen da euskal jendarte tradizionala ordezkatzeko duten pertsonaiekin” (2015, 414 or.).

Hari beretik, belaunaldi berriek nahi duten askatasunaren gaiak ere badihardu *Ortzadarra*, *Hego-haizearen ipuinak* eta *Buruntza azpian* lanetan. Azken horretan, Etxanizen ustetan, “Margaritak presondegi duen leize hori 40 urtez euskal gizarteak preso izan duen diktadura besterik ez da; eta libre izateko pasio hori, desira hori, askatasunaren aldeko aldarrikapena dugu” (2012, 111 or.). Nire ustez, askatasun nahiaren aldarriak badu zerikusia emakumearen irudiarekin eta garaiko emakumearen

rolarekin ere. Izan ere, emakumeari esleitu zaion lekua beti izan da etxe barrua eta etxekoen zaintza, eta hortik, leizetik irten nahia.

Oro har, edozein gai lantzen dela ere, Iriondoren kontakizun guztietan ikus daitekeena dikotomia sinplea da, onaren eta txarraren arteko banaketa, eta, beraz, istorioek karga moralista dute.

Kontakizun guztiak trama bakarrekoak dira eta egitura sinpleak dituzte. Ez dago deskribapen handirik eta elkarrizketa asko agertzen dira.

Baina, agian, sinpletasuna, argumentuaren atzean ezkututzen diren mezuak eta gizarte haustura, pertsonaien garapen urria eta gertakariena, liburuko orrietan zehar ageri diren irudi sinpleak, trazuen bidez egileak berak (lau haurren laguntzarekin) eginak... horrek guztiak badu zerikusia liburua argitaratu zen garaiarekin eta hartzailearekin. Aurretik aipatu bezala liburu hau eredu bat baita (...), haurrei, garai bateko haurrei, eskainitako idazlan dramatiko entretenigarri eta bizia. (Etxaniz, 2012, 112 or.)

Iriondoren *Lotara joateko ipuinak* lanean, alegiak aurki daitezke. Testuinguru historikoaren atalean aipatu bezala, Bizenta Mogelen *Ipui onak* (1804) lanak Esoporen fabuletan du jatorria; Marijane Minaberrik ere gisa honetako ipuinak idatzi zituen eta Mayi Ariztiak ipuin herrikoien bilketa egin zuen. Bada, Iriondoren lana tradizio horretan txertatzen da nola edo hala.

Emakumearen irudiari dagokionez, euskal literatura tradizionalan pertsonaia femeninoa ezkontzera edo erlijio-bizitza komentualera zuzenduta dago, eta ezkongabetasuna zigorra da (Toledo, 2000, 341 or.). Arestian aipatu bezala, Iriondoren obra batzuk tradizioan oinarrituta daudenez, emakumezkoaren rol hori bere istorioetan erreproduzitzen da: familiak gogoz kontra ezkontzen dituzte edota askatasunari uko egiten diote gizonezkoaren ondoan geratzeko.

Kontakizunetan emakume eta gizonek dituzten egin behar ezberdinak ere argi ikus ditzakegu. Horrela banatzen ditu Toledok "El personaje femenino en la novela costumbrista vasca"n:

Rasgos que han alcanzado la tipicidad en el género masculino y que, previsiblemente, los enlaza con la función laboral que desempeñan en la familia: son la fuente de la economía familiar, mientras las mujeres están más centradas en las labores domésticas y cuidado de la familia, aunque no exclusivamente porque cooperan en las labores agrícolas o pesqueras que se nos presentan (2000, 345 or.).

Eta horrela betetzen dira Iriondoren obran ere. Ikusten dugunez, pertsonaia femenino gehienek lanbiderik ez izateak, familiaren inguruan kontzentratzen ditu, pertsonaia femeninoa are gehiago estereotipatuz. Maskulinoak, aldiz, hainbat lanbide eta eszenatokitan mugi daitezke, eta, horrek, nortasun desberdinak izatea ahalbidetzen die.

Emakumeen nortasunak aztertzean, berriz, soilik bi nortasun bereiz daitezke, bi irudi: emakumea gaztea eta emakume zaharra (Alvarezek ere era berean banatzen ditu bere komentarioan). Dena den, esango nuke desberdintasun horiek ez daudela adinari lotuta, edertasunari baizik; literatura tradizionalan bezala.

No cabe el personaje cuya descripción física se identifique con la belleza y presente cualidades como el orgullo y la envidia. El destino que le reserva el narrador al final del relato también irá acorde. La descripción física delata, sin más, la caracterización psicológica o moral que recibirá el personaje, así como el destino final que le está reservado. No a nivel concreto, pero sí a nivel general. Cuando la descripción física presenta un personaje que se aleja de la belleza, se puede concluir, sin esperar otros datos, que no será un dechado de virtudes y que el infortunio le espera al final del relato. (Toledo, 2000, 340 or.)

Horregatik, lanetan aurki ditzakegun emakume gazteak eder izatera (eta edertasun horrekin gizonak limurtzera) eta gizarte heteropatriarkalak emakume ideal baten figurari esleitutako estereotipoak jarraitzera beharturik daude. Aldiz, emakume nagusiak, jada edertasuna galdu dutenak, adjektibo negatiboez deskribatuak dira (harropuzak, zekenak eta inbidiatsuak) edota kontakizunean zoritxarren bat jasatera kondenatuak.

8. ONDORIOAK

Adierazgarria da, Lourdes Iriondok herrian egindako lana: familia onekoa izan eta bere egoerarengatik jasotako jakintzak ingurukoei transmititu nahi izatea, hau da, misiolari eta haurren irakasle gisa ibili nahi izatea.

Eta zer esanik ez Euskal Herriari edota euskarari eskaini ziona. Nahiz eta gurasoak euskal jatorria izan, gazteleraz mintzatzen ziren etxean eta aipagarria da Iriondo herrigintzan euskaraz aritzea.

Argitaratutako liburuei dagokienez, ia materialik ez zegoen garaian, bere ekarpena egin zuen Iriondok, eta, nahiz eta literarioko sinpleak izan, garai bateko haurrei opari ederra egin zien idazleak.

Eta liburuez gain, ezin ditugu ahaztu berak eginiko grabaketak. Formatu berriak erabili zituen Haur Literaturaren arloan, ikasleekin ipuinak audioan eta antzerkiak bideoan grabatuz. Izan ere, guk dakigula, inork ez zuen grabaziorik egin (edo, behintzat, argitaratu) urte haietan. Iriondok, aldiz, garaiko baliabideak aprobetxatzen jakin zuen, eta horrek ere bere balioa du.

Azterketan ikusi bezala, tradiziozko ipuin eta abesti ugarian aberatsak ziren bere idatziak eta, era horretan, transmisioa ahalbidetu zuen. Horrez gain, garaiko gaiak edo haurren interesekoak zirenak ere jorratu zituen.

Ez hori bakarrik, Iriondok berak hitzaurreetan azaltzen zuenetik ondorioztatu dugun bezala, neska-mutilen parte-hartzea bultzatzen zuten metodologiak erabiltzen zituen. Graduan hainbat alditan aipatu diguten proiektu bidezko ikaskuntza edo konstruktibismoarekin lotura badu figura honek egindako lanak. Metodologia hauetan bezala, haurrak bihurtzen ziren ikaskuntza prozesuaren erdigune eta haien interesetatik eta ezagutzetatik sortzen zituzten antzerki lanak, Iriondok bidelagun papera betetzen zuen bitartean.

Gai aldetik bere obrak gaurkotasuna galdu duen arren, aipatzekoa da bere metodologiak diziplinartekotasunean eta pedagogia aktiboetan duela oinarria, zeinak maiz aipatzen diren egungo LOMLOEn eta, oro har, hezkuntzaren testuinguruan. Izan ere, Iriondok hainbat eta hainbat esparru lantzen zituen hurrekin, literatura abiapuntutzat hartuta.

Azken ondorio gisa, arreta deitu nahi nuke Lourdes Iriondoren obra balioesteko beharrari begira. Izan ere, ezin da bere obra epaitu berau garatu zen testuinguru aintzat hartu gabe. Testuinguru horri buruzko xehetasunak aurkeztu dira hemen, eta argi dago

egoera soziopolitiko zailean eta hizkuntza gutxiagotu batean lan egin zuela. Baina, gainera, azpimarratu behar da Iriondoren lana euskal Haur eta Gazte Literatura sistema garaikidea konfiguratu aurretik garatu zela. Horrek ondorio zuzenak ditu Iriondoren obraren nolakotasunean, eta baita obra horiek gaurkotasuna hain azkar galtzean ere. Alabaina, gisa berean, aitzindariari zor zaien begirune osoa eskaini behar zaio Iriondoren figurari.

9. AZKEN HITZA

Azterketa honek Lourdes Iriondoren obra jasotzea, aztertzea eta haren lanari balio ematea izan du jomuga, apenas egon baita honen inguruko aurretiko azterketarik. Alde horretatik, lan honek aipatutako hutsunea bete nahi izan du, eta, ustez, neurri baten, bete ere bai; eta, horrez gain, etorkizuneko lanen hastapena izan nahiko luke.

Egia da lan honek muga batzuk badituela. Soilik argitaratutako lanak aztertu dira, baina jakin badakigu Urnietako Egape ikastolan urteetan lan egin zuela Iriondok, eta aberasgarria izango litzateke lan horri dagokion materiala eskuratu eta aztertu ahal izatea. Hala ere, Iriondok eta Letek ez zuten seme-alabarik izan, eta seguraski material hori Iriondoren neba-arreben artean eta iloben artean ere sakabanatua egon daiteke.

Hain zuzen, aitortu behar dut lan horretan murgilduta nagoela une honetan. Iriondoren artxibo pribatuko hainbat material lortuta, berauek aztertzen ari naiz. Material horren artean daude, oso labur esateko, eskolan erabilitako askotariko materialak, antzerki gidoiak, ipuinen zirriborroak, testu argitaratu gabeak, marrazkiak, proiektuak garatzeko eskemak eta abar luzea. Ikerketa hasi besterik egin ez dudan arren, Iriondoren figura balioan jartzeko aukerak ikerketan aurrera egiteko ilusioa sendotzen du.

Azkenik, etorkizunera begirako bestelako egin beharrak ere aipatu nahi nituzke. Batetik, hemen aurkeztutako azterketan Iriondoren literatur obra aztertu da, baina interesgarria izan liteke kantagintza ere aztertzea, bere figura osotasunean baloratzeko. Bestetik, lan hau obraren azterketara mugatu da, baina figura honen transmisioa bultzatze aldera, Lehen Hezkuntzarako Unitate Didaktikoren bat sortu liteke, adibidez Antton Kazabonen *Lurdes Iriondo "Lulu"* (2021) liburutik abiatuta. Azkenik, interesgarria izan daiteke azterketa konparatu orokor bat egitea ere, begirada feministatik, Iriondo bezala hezkuntzan eta literaturan aritu ziren baina itzalpean geratu diren beste sortzaile aitzindari batzuen lanean murgilduz.

10. BIBLIOGRAFIA

Oharra: Idazle gehienak gizonezkoak direla suposatzen duen kultura batean, idazle-zerrenda bateko izenak maskulinoak direla suposatzen da; horrela, bada, emakume asko ikusezin geratzen dira. Nahiz eta jakin, APA arauetara jarraiki, idazle bakoitzaren izena bere inisialez aipatu behar dela, nire hautua izan da, eta ez kasualitatea edo ezjakintasuna, bibliografian idazlearen izen osoa jartzea. Horrekin, bestela agerian ez leudekeen emakumeak ikusgai egiteko.

Agirrebeña, Aintzane (2007ko martxoaren 5a). *Eskutik helduta kantatzeko kanta*. ahotsak.eus. <https://ahotsak.eus/arrasate/pasarteak/arr-035-023/>

Agote, Gontzal (d.g.). Lourdes Iriondo. *Badok*. http://artxiboa.badok.eus/artista.php?id_artista=65&markatu=iriondo

Aldekoa, Iñaki (1993). *Zirkuluaren hutsmina: Jatorrizko erromantizismotik euskal poesia modernora*. Irun: Alberdania.

Altzibar, Xabier (2008). Alegia. In *Literatura terminoen hiztegia*. (29-31 orr.). Bilbo: Euskaltzaindia.

Alvarez, Amaia (2005). Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian. Dorrearen arrakalak agerian uzten. *Jakin*, (148), 37-74.

Alvarez, Amaia (2015). *Buruntza azpian* edo dena hankaz gorako lurraldea. *Retorno aos clássicos: obras imprescindíveis da narrativa infantil e juvenil* (411-423 orr.). Vigo: Xerais.

Argüelles, Garbiñe eta Zelaieta, Edu (2015). Ahozko adierazpena eta dramatizazioa Haur Hezkuntzako irakasleen baliabide. *Tantak*, 27 (1), 87-105.

Arroita, Izaro (2019). Mensajero argitaletxearen (1915-) soslaiak. In *MHLI-Memoria Historikoa Literatur Iberiarretan*. Hemendik berreskuratua: <https://mhli.net/artxiboa/mensajero-argitaletxea/>

Azkue, Resurrección María (1921-1925). *Cancionero Popular Vasco*. Bartzelona: A. Boileau y Bernasconi.

Azkue, Resurrección María (1922). ¿Nahi zuya yin? [Abestia]. In *Cancionero Popular Vasco*. Hemendik berreskuratua: <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/dokumentu-fondoa/euskal-kantutegia/ab-163/>

- Azkue, Resurrección María (1922). Nire maitea, maite polita [Abestia]. In *Cancionero Popular Vasco*. Hemendik berreskuratua: <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/dokumentu-fondoa/euskal-kantutegia/ab-292/>
- Azkue, Resurrección María (1922). Sarian zuzun [Abestia]. In *Cancionero Popular Vasco*. Hemendik berreskuratua: <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/dokumentu-fondoa/euskal-kantutegia/ab-749/>
- Azkue, Resurrección María (1922). Lagongon [Abestia]. In *Cancionero Popular Vasco*. Hemendik berreskuratua: <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/dokumentu-fondoa/euskal-kantutegia/ab-825/>
- Azkue, Resurrección María (1935-1947). San Martinen estutasuna. In *Euskalerrriaren Yakintza* (312-314 orr.). Hemendik berreskuratua: <https://www.euskonews.eus/0707zkb/gaia70701eu.html>
- Azurmendi, Nerea (1987). Emakume idazleak euskal literaturan. *Jakin*, 45, 25-36.
- Bal, Mieke (2013). *Teoría de la narrativa. (Una introducción a la narratología)*. Madrid: Cátedra.
- Balzola, Asun, Gonzalez, Elena, Iriondo, Lourdes eta Lertxundi, Anjel (1982). *Lotara joateko ipuinak*. Donostia: Erein.
- Berria (2005eko abenduaren 27a). Lourdes Iriondo hil da. *Berria*. <https://www.berria.eus/albisteak/12578/lourdes-iriondo-hil-da.htm>
- Diaz, Willard (2013). El análisis narratológico Clásico. *La Vida & la Historia*, (1), 86-90. <https://revistas.unjbg.edu.pe/index.php/vyh/article/view/327/326>
- Etxaniz, Xabier (1997). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruña: Pamiela.
- Etxaniz, Xabier (2012). Lurdes Iriondo: Buruntza Azpian (1979). *Egungo euskal antzerkiaren historia* (105-112 orr.). Bilbo: EHU.
- Etxaniz, Xabier eta Lopez, Manu (2007). Begirada historikoa bat haur antzerkiaren gainean. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (16), 21-32.
- Euskaltzaindia (d.g.). *BBK-EUSKALTZAINDIA SARIAK (1958-2008) – SARITUAK*. Euskaltzaindia. Hemendik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=bbk-euskaltzaindia&view=frontpage&Itemid=475

- Fernandez, Nagore, Urzelai, Ainhoa eta Villagran, Ane (2022). 3.kapitulua. Haur eta Gazte Literatura gisa sailkatutako euskal liburuen zentsura txostenen azterketa (1975-1983 epealdia). In Ana Gandara (Ed.), *Euskal liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1983)* (115-184 orr.). Leioa: EHU.
- Gurrutxaga, Amagoia (2020ko abenduaren 26a). Izar eta ezin. *Berria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/2009/022/001/2020-12-26/izar-eta-ezin.htm>
- Hartsuaga, Juan Inazio (1989). Mateo-Txistu (1989ko bertsioa). In *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Hemendik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/mateo-txistu/ar-93400/be-1/>
- Hartsuaga, Juan Inazio (2023). Mateo-Txistu. In *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Hemendik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mateo-txistu/ar-93400/>
- Ibarluzea, Miren (2019). Euskal edizioaren hiztegiaren sarrera: Edizioa euskaraz. In *MHLI-Memoria Historikoa Literatur Iberiarretan*. Hemendik berreskuratua: <https://mhli.net/euskal-edizioaren-hiztegia/>
- Iriondo, Joxe Mari (2006). *Lurdes Iriondo (1937-2005)*. Bidegileak 44. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Iriondo, Lourdes (1969). *Aur kantak* [Albuma]. Herri Gogoia-Edigsa. Hemendik berreskuratua: http://artxiboa.badok.eus/diskoa.php?id_disko=567&id_artista=65
- Iriondo, Lourdes (1973a). *Martin Arotza eta jaun Deabrua. Sendagile Maltzurra*. Bilbo: Gero.
- Iriondo, Lourdes (1973b). *Hego-haizearen ipuinak*. Bilbo: Gero.
- Iriondo, Lourdes (1975a). *Asto baten malura*. Bilbo: Gero.
- Iriondo, Lourdes (1975b). *Buruntza azpian*. Bilbo: Gero.
- Iriondo, Lourdes (1975c). *Ipuiak* [Albuma]. Herri Gogoia-Edigsa. Hemendik berreskuratua: http://artxiboa.badok.eus/diskoa.php?id_disko=571&id_artista=65
- Iriondo, Lourdes (1978). *Ortzadarra* [Albuma]. Herri Gogoia. Hemendik berreskuratua: http://artxiboa.badok.eus/diskoa.php?id_disko=573&id_artista=65

- Jauregi, Antton (2008ko azaroaren 18a). *SENDAGILE EROA* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=pjQ002eLpPI&list=PLD850F40C12BD8505>
- Larrinaga, Josu (2016). *Euskal musika kosmikoak: Euskal musika popularra gizartearen isla eta aldatzailea*. Mungia: Baga Biga.
- Lekuona, Manuel (1978). *Txuri eta gorri eta kikirriki*. (4. edizioa). Donostia: Etor.
- Lertxundi, Anjel (1996). *Letrak kalekantoitik*. Irun: Alberdania.
- Martín, Eukene (2000). Descripción del personaje femenino en la cuentística moderna para el lector infantil euskaldun. In *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)* (Vol. VI, 347-369 orr.). Barcelona: Anthropos Editorial.
- Olaziregi, Mari Jose (1999). *Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako literatura*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Onega, Susana eta García, Jose Angel (Ed.). (2014). *Narratology: an introduction*. New York: Routledge.
- Retolaza, Iratxe (2008). Narratologia. In *Literatura terminoen hiztegia* (589 orr.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Toledo, Ana María (2000). El personaje femenino en la novela costumbrista vasca. In *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)* (Vol. VI, 332-346 orr.). Barcelona: Anthropos Editorial.
- Torrealdai, Juan Mari (1978). Euskal liburugintza 1977.ean. *Jakin*, (5), 103-122.
- White, Linda (2000). Escritoras vascas del siglo XX. Aproximación histórica. In *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)* (Vol. VI, 265-283 orr.). Barcelona: Anthropos Editorial.
- Zubeldia, Iñaki (2011). Euskarazko haur eta gazte literaturaren bilakaera. *EGAN*, 64 (1-2).
- Zuloaga, Eneko (d.g.) Argitalpenen historia Euskal Herrian. In *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Hemendik berreskuratua: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/argitalpenen-historia-euskal-herrian/ar-153819/>

11. ERANSKINAK

1. eranskina: Obraren deskribapena

1.1. *Martin Arotza eta Jaun Deabrua eta Sendagile Maltzurra (1973)*

Martin Arotza eta Jaun Deabrua eta Sendagile Maltzurra, “Kimu” saileko bigarren argitalpena da. 133 orrialdeko liburu honetan, haur eta gazteentzako bi antzerki aurki daitezke. Gidoia eta irudiak Iriondok eginak dira eta liburua hurrengo atalez osatua dago: “Oharra”, “Martin Arotza eta Jaun Deabrua”, “Sendagile maltzurra” eta “Abestiak”.

Liburua zabaltzen duen “Oharra” atalean, Lourdes Iriondoren ikuspegiari dagozkion hainbat elementu aipagarri daude. Lehen lerroetan, hezkuntzaz eta haur antzerkiak mintzo da Iriondo, antzerkiaren erabilera pedagogikoa eta obra honi dagokion *intentio auctoris* argi adieraziz: “Gure Herriko ipui eta kanta zaharretatik mila gai berezi bildu liteke, haur eta gaztetxoentzat teatro orijinalak egin ahal izateko” (Iriondo, 1973a, 5 or.).

Ohar gaitezen, gainera, ipuin eta kanta zaharrek egilearentzat duten garrantzia erabatekoaz. Egilearen arabera, gai eta arazo klasikoak “molde berrietara” ekartzeko aukera ustiatu behar da, “irudimena eta irudikatzearen gustoa” zabalduz. Horixe da, hain zuzen, Iriondoren asmoa lan hauek argitaratzean: haurrei, irakasleei eta hezitzaileei materiala eskura jartzea. Eta beste ekintzaileak horretara animatzen ditu, gomendioak emanez, eta, “norbaitek montatuko balitu” (Iriondo, 1973a, 6 or.), zer egin gomendatuz.

Tradiziozko altxorraren aldarrikapena aurrerago ere agertzen zaigu. Hain zuzen, “Martin Arotza eta Jaun Deabrua”n, bi sorgin ikusten ditugu hizketan, hainbat unetan. Sorgin horiek ikus-entzuleei zuzentzen zaizkie; hasieran, adibidez, ikusiko duten antzerki obra aurkeztuz. Baina, aldi berean, liburuaren sarreran zegoen ideia ere berresten dute: galdetzen dute ea oraingo haurrek ez ote duten sorginen ipuinik ezagutzen, “guk dakigun hainbat ipui zahar politekin” (Iriondo, 1973a, 12 or.), eta narrazio horien edertasuna aldarrikatzen dute, “bene-benetako ipui eder bat, aintzinako denboretan gertatutakoa” (Iriondo, 1973a, 15 or.). Orduan, hainbat aipatzen dituzte: Anbotoko Damarena, Murumendiko Damarena, Basajaunarena, Mateo Txistu, Martin Zikin... Esan beharra dago Mateo Txistu ipuina Iriondok 1975ean (antzerki lana baino bi urte beranduago) kaleratu zuen *Ipuiak* LPan grabaturik dagoela (deskribapena irakurtzeko, ikus 1. eranskineko 6. puntua).

Amaieran ere argi adierazten dute euren (eta, zalantzarik gabe, Iriondoren) ikuspegia:

BELTZA: Hau bezalakoak [ipuinak], eta politagoak ere, asko daude Euskal Herrian.

GORRIA: Eta zuek ikasi egin behar zenituzkete, gaztetxo azkar eta benetan euskaldunak izateko. (Iriondo, 1973a, 45 or.)

Sarreran, aipatu ditudanez gain, lan bakoitza zein adin tartetara bideratua dagoen ere adierazten da.

«Martin Arotza eta Jaun Deabrua», adin berezi bateko (hamalau, hamabost, hamasei urtetako) gaztetxoek haur ttipiei (ikastoletakoei, adibidez) errepresentatu ahal izateko asmatua dago.

Bestea, «Sendagile Maltzurra», ez haurrentzat, baizik gaztetxoentzat da bereziki; gaiaren haria frango bihurriago baita... (Iriondo, 1973a, 6 or.)

“Martin Arotza eta Jaun Deabrua” lanari dagokionez, hasieran ez dago pertsonaien zerrendarik, ezta deskribapenik ere. Gorago esan bezala, sorgin beltza eta sorgin gorria oholtzan sartu eta antzerkiaren sarrera eskaintzen dute. Entzuleei istorio bat kontatuko dietela esan eta, hainbaten artean, “Martin Arotza”rena hautatzen dute.

Istorio hau Resurrección María Azkuek jaso zuen *Euskal Herriaren Yakintza* liburuan “San Martinen Estutasuna” izenarekin. San Martin errementaria da eta lanean dabilela, kolpe txarren bat jo eta biraoka hasten da. Deabrua bere aurrean agertu eta errementaria esandako guztiez damutzen denez, joateko eskatzen dio. Dena den, deabruak ezetz; beragandik libratzeko, bi gauza agintzen dizkio: erreminta berri bat sortzeko eta kristautasunaren 12 misterio aipatzeko.

- Martintxo: esaik amairu.
- Eztok amairu.
- Badok amaitu.
- Oilafak yoten dau munduan, aingeru edefak zeruan, neure arimea izten däutsat Andra Mariari altzoan. (Azkue, 1935-1947, 314 or.)

San Martinek zerra sortu eta deabruarekin misterioen inguruko elkarrizketa izatean, deabrua desagertu eta bukatu egiten da ipuina.

Jakin badakigu Azkueren eta beste hainbaten bildumak aski ezagunak zituztela Iriondok eta bere garaikideek; izan ere, Ez Dok Amairu taldearen izena bera ere ipuin honen amaieratik dator.

Zerrendaketen eta hamahiru zenbakiaren harira, Lertxundiren esanetan (1996), euskal kantagintzan elementuen pilaketak askotan egin dira, “soka batetik tiraka bezala

aurrekoari elementu berria erantsirik” (1996, 247 or.). Baina hamaika edo hamabi osagaiko zerrendak izaten ziren, ez hamahirukoak, zenbaki hori Heriorekin lotua baitzegoen.

Iriondoren bertsioari dagokionez, “Martin Arotza eta Jaun Deabrua”ren istorioan, arotzak deabruari aberastasunak, emazte eder bat, seme-alabak... eskatzen dizkio, eta honek arima eskatzen dio trukean.

Tratuan zehaztutako hogeitau urteak pasa ondoren, deabrua arotzaren arimaren bila itzultzen da. Hala ere, deabruak bi baldintza jartzen dizkio arotzari, berarekin ez eramateko (Azkueren bertsioan bezalaxe). Lehenengoa, ordu eta erdian, burdinezko tresna berri bat asmatzea. Erronka horri erantzuteko, arotzak zerra asmatzen du, gaztainondoaren hostoaren itxura erreproduzitzen. Eta bigarrena, deabruak zenbakiak esan ahala, arotzak erlijioarekin lotutako zerbaitekin erantzutea.

Arotza hamahiru zenbakian “Ez dok hamahiru! Badok hamahiru!” (Iriondo, 1973a, 44 or.) esanda libratzen da, jada malefiziorik ez dagoela adieraziz. Azkue eta Iriondoren amaierak desberdinak dira. Arestian adierazi bezala, Azkuek errementariaren eta deabruaren arteko elkarrizketa jasotzen du; Iriondok, berriz, biak jartzen ditu Martinen ahotsean, istorioaren zentzua, hamahiru izendatzearen eta madarikazioaren arteko lotura argia egitea galaraziz.

Amaiera zoriontsua du ipuinak. Arotzak ez du arima galdu nahi eta hori lortzen du, hau da, protagonistaren helburua eta paraleloki irakurlearen espektatibak betetzen dira. Era honetan, haurrak ikusten du edozein oztopo gaindi daitekeela, mezu positibo eta itxaropenezkoa transmititzen baita.

Sorginak hasieran bakarrik ez, gero ere agertzen dira; tartean, “bigarren sarrera” atalean (Iriondo, 1973a, 29 or.) eta amaieran, “bukaera” atalean (op. cit., 45 or.). Narratzaile funtzioa dute, eta publikoari zuzentzen zaizkie. Narratzaile orojakileak dira, gainera, pertsonaien sentimenduak ezagutzen baitituzte.

Hizkerari dagokionez, aipatzekoa da euskalkien nahasketa. Hasieran, arotza erdi batuan erdi gipuzkeraz hasten da hizketan, baina ondoren bizkaierarekin nahasten du. Beste era batera esanda, Iriondok Azkueri hartzen dizkion zatietan, hizkera moldatu gabe dago. Esate baterako, elementuen zerrenda egiten duenean, Martinek Azkueren hizkera baliatzen du. Horrek pertsonaiaren sinesgarritasuna kolokan jartzen du, eta, batez ere, asmo didaktikoa azaleratzen du, literarioaren gainetik.

Heldu diezaiozun orain “Sendagile maltzurra” antzezlanari. Bigarren antzezlan honetan, lehenengo orrialdean, “pertsonaiak” (Iriondo, 1973a, 49 or.) agertzen dira

zerrendatuta eta labur deskribatuta. Lehen agerraldian, Xebaxtian, 16 urte inguruko morroi gazteak emango dio hasiera antzezlanari. Pertsonaia oholtzan agertu eta irabazi duen diruaren inguruan, bakarrizketan arituko da. Ondoren, publikora zuzendu, bere burua aurkeztu eta kontestuan jarriko ditu entzuleak. Pertsonaia honek, aurreko lanean sorginek bezala, narratzailearen papera hartuko du eta orojakilea izango da, istorioan parte-hartzen dutenen sentimenduak ezagutzen dituelako.

Etxeko andre Maria, ondoezik egon eta Peruk, senarrak, bere lagun medikuari deitzen dio bere emaztea ikustera etor dadin. Emaztea, aspertuta dagoela konturatzen da eta ez ondoezik eta medikuaren bisita gustura hartzen du. Horrela ba, hurrengo batean biak bakarrik egoteko, Peru senarra Gasteizera bidaltzen dute botika baten bila.

Hala ere, Xebaxtian morroia etxeko andrearen trikimailuz konturatu eta nagusiari abisatzen dio. Biak Gasteizera joateko plantak egin eta zelatan geratzen dira, morroiaren usteak betetzen diren ala ez ikusteko.

Medikua etxera sartzen dela ikusi, nagusiak harrapatu eta herritik urrun ihes egiteko esaten dio. Ondoren, morroiari saria eman eta bere etxera bidaltzen du.

Amaierari dagokionez, istorio honen amaiera onarpenezkoa litzateke, egoera onartzen baitu protagonistak. Morroiak esandakoa egia dela deskubritzen du eta bere helburua ez da betetzen.

Xehatu ditugun bii antzezlanek haur herri ipuinaren ezaugarriak dituzte: denbora edo garaia zehaztu gabeak dira. Lekuarekin ere gauza bera gertatzen da. Dena den, Euskal Herriko edozein herritan koka daitezke.

Gaiei dagokienez, sarreran telebistari kritika egiten zaio. Gaur eguneko haurrek telebistari kasu larregi egiten diotela, telebistako iragarkiekin behar ez dituzten tresna ugari saltzen dizkietela eta honen erruz, ahozko tradizioko ipuin zaharrak ez dakizkitela.

BELTZA: Zuek, umeok, ergel batzuk zarete. Ez dakizue ona zer den. Futbola eta telebista bestetaz mintzatzen ez dakizue. Non duzue lotsa? Ez ote dakizue Basajauna nor den ere?... (Iriondo, 1973a, 15 or.)

Bestalde, iraganeko baserri giroa ondo irudikatzen dute pertsonaiek: etxeko burua den senarra; etxeaz arduratzen den emaztea; seme alaba ugari; botere harremanen irudi den morroi gaztea...

Literatura tradizionalan ohikoa den bezala, naturaren gaia presente dago bi antzezlanetan zehar eta horrez gain, bigarreanean, euskal mitologiako pertsonaia batzuk aipatzen dira (Anbotoko Mari, basajaun).

Oro har, oposizioa agertzen da, ona eta txarraren arteko banaketa. Lehen antzerki laneko deabrua eta bigarreneko medikua gaizkiaren metaforak lirateke eta familia buruak, aldiz, onarenak. Ikaskizuna dago, beti onak irabazten baitu eta normalean, gaizkia egiten duenak, ondorioak jasaten ditu. Era horretan, istorioak karga moralista du.

Bi lanetan trama bakarra gertatzen da. Eskematizazioa dago, deskribapen gutxi egiten baita, baina pertsonaiak istorioan zehar egiten dituzten ekintzen bidez deskribatuak dira. Lexikoa ez da ugaria baina bai aberatsa; besteak beste, lanbideari eta erlijioari dagozkion terminoak eta gaur egungo haurrek ezagutuko ez lituzketenak erabiltzen dira. Hirukotasuna ikus daiteke *Sendagile Maltzuraren*ean, hiru aldiz joaten baitaie senar-emazteei sendagilea etxera.

Emakumearen irudiari dagokionez, alde batetik sorginak daude; bat beltzez jantzia, alargunen antzera, katua hil zitzaiolako eta bestea gorritz jantzia, ardoa gustatzen zaiolako. Neska gazteei dagokienez, "Agerreren alaba", Patxika, gaztea eta ederra eta Maria etxeko andrea, gaztea, asperturik dagoena eta senarra engainatzen duena. Emakumeen paperak beraz, eder izan eta gizonak limurtzera, emaztegai edota etxeko andre izatera eta nagusitzean, alargun izatera mugatzen dira.

Kanta zati ugari dago antzerki obran zehar. Protagonista guztiek abesten dute uneren batean (Martinek, deabruak eta sorginek, batetik; Peruk, Mariak, Sendagileak, morroiak eta atsoak, bestetik). Horrez gain, amaieran partitura sinple batzuk gehitzen ditu Iriondok. Elementu horiek agerian uzten dute antzerki obrak, asmo literarioaz gain, asmo didaktikoa duela, eta baita kultur transmisioa egitekoa ere, ahozko ondare kulturalari lotuta.

1.2. Hego-haizearen ipuinak (1973)

Hego-haizearen ipuinak "Kimu" saileko laugarren liburua da, 107 orrialde ditu eta Iriondok asmatutako eta herri ipuin eta kantetan oinarritutako bost ipuin aurki daitezke bertan. Marrazkiak, aldiz, Lourdes Iriondoren zazpi ilobek eginak dira.

Bost ipuinek, haur herri ipuinaren ezaugarriak dituzte: denbora edo garaia zehaztu gabeak dira; dena den, lekuari dagokionez, Euskal Herriko herriren batean koka daitezke. Egitura sinpleak dituzte eta denbora lineala da: sarrera, korapiloa eta amaieraz osatzen da.

Literatura tradizionalen ohikoa den bezala, naturaren gaia, animaliak eta baserri giroa presente dira. Oro har, dikotomia sinplea ageri da: oposizioa agertzen da, ona eta txarraren arteko banaketa. Era horretan, istorioek karga moralista dute.

Trama bakarra gertatzen da ipuinetan zehar eta eskematizazioa dago, deskribapen gutxi egiten baita, baina ez dago beharrik, pertsonaiak istorioan zehar egiten dituzten ekintzen bidez deskribatuak baitira. Lexikoa ez da ugaria baina bai aberatsa; baserri giroko eta lanbideei dagozkien hitzak eta gaur egungo haurrek ezagutuko ez lituzketenak erabiltzen dira.

Emakumearen irudiari dagokionez, emakume gazteak bahituak edo gogoz kontra ezkonduak dira eta nagusiak aldiz, tranpatiak, zekenak edo abariziadunak dira, auzokoari txakurra hil edota alaba gizon zahar dirudun batekin ezkontzeko beste.

“Martin Arotza eta Jaun Deabrua”n egiten duen bezala, liburuaren hasieran, telebistaren gehiegizko erabilerari eta harek esandakoari kasu egiteari kritika egiten dio idazleak.

“Ilunabarrean, denen etxetako leihoetan ehun telebisio tresna berdinek zarata berdina ateratzen dute. Gaueko ordu berean, baita ere, ehun tresna haiek batera isiltzen dira. Etxeak eta pertsonak berdin eta aspergarri dira; holako multzoaren tartetik eguzkia doi-doian ikus liteke.” (Iriondo, 1973b, 5 or.)

Ondoren, hego-haizeak bere buruaren aurkezpena egiten du; pertsonifikatuta agertzen zaigu.⁶ Jarraian, bost ipuinak aurkezten ditu.

Belardia galdu zuen kilkerra

Kilkerra da ipuin honen protagonista. Bere gurasoekin bizi da belardian, eta, egun batean, gizakiek bere belardian etxebizitza batzuk eraiki behar dituztenez, etxea eta gurasoak galtzen ditu. Kilkerrak hainbat leku ezagutzen ditu baina burumakur geratzen da galdu duen guztiaz pentsatzen. Hego-haizearekin elkartzen denean, horrek animatu egiten du, bizia eta askatasuna duela esanez, gauzarik garrantzitsuena.

Askatasunaren eta natura zaintzaren garrantziaren gaiak jorratzen ditu ipuin honek. Narratzailea kilkerra bera da eta lehenengo pertsonan kontatzen du istorioa, hego-haizearen kasuan bezala, pertsonifikazioa baitago.

⁶ Animalia eta gauzei pertsonen ezaugarriak esleitzearen figura literarioa pertsonifikazioa deitzen zaio.

Hondarribia, herri ttikia

Neska gazte baten istorioa kontatzen du ipuin honek. Ama batek hiru alaba ditu eta bere bigarren senarrak okindegian irabazten dutenarekin, ez du denek jateko beste ematen. Alaba batek, Isabelak, aitzogilearekin ezkondu nahi duela esaten die baina amak eta okinak ez diote uzten. Hurrengo, Manuelak, herriko sakristauarekin ezkondu nahi duela baina honi ere ezezkoa ematen diote. Azkenik, diru faltarengatik, Margarita, Don Hilario albaiteko zahar dirudunarekin ezkontzea erabakitzen dute. Familia kideak pozik jartzen dira etxea konpontzea eta janari goxoa jatea lortzen dutenean, hala ere, Margaritaren bizia oso tristea bilakatzen da.

Klase sozial ezberdinak aurki daitezke ipuinean, hitzartutako ezkontzak eta gogoz kontra ezkonduko neskatxa gaztea eta diruak ez diola mundu guztiari poztasuna ematen.

Istorioaren bukaeran testuartekotasuna aurki daiteke, ipuinean “Amak ezkondu ninduen hamabost urterekin” abestia txertatzen delako.

Txakur gorri ttiki bat

Txokoa baserriko oilategian azeria sartu eta sekulako triskantza egiten duenez, Txilibistrok txakur gorri txiki bat erosten du. Txakurra ekartzen denetik ez da ezer gertatzen Txokoa baserrian, hala ere, inguruko baserrietakoak nazka-nazka eginda daude eta azeria akabatzen duenari saria emango diotela erabakitzen dute. Goiz batean Errotan bizi diren senar-emazteek Txilibistoren txakurra ikusi eta azeriaren itxura duela ikusita, hura akabatu eta sariaren bila joateko erabakia hartzen dute. Txilibistro konturatu egin dutenaz konturatu eta tabernara joaten da edan eta tristura hiltzera.

Hurrengoak dira ipuin honetan lantzen diren gaiak: abarizia eta zekenkeria. Oro har, aipatzekoa da testuartekotasuna dagoela, abesti bat testuan txertatzen baita.

Asto zaharra

Asto zaharra jabeak ardoz kargatu eta Leirera abiatzen dira fraileei ardoa saltzera. Behin bertara helduta, soilik jabea igotzen da santutegira, mendi puntara eta astoari zain egoteko esaten dio. Astoa deskantsatzen dagoela, otsoa agertu eta irentsiko egingo duela esaten dio. Astoak azken borondatea eskatzen dio otsoari: Mendian gora joan nahi duela bere azken meza entzutea. Bertan nagusiarekin elkartu eta pozik jaisten da mendian behera otsoa engainatzea lortzen duelako.

Hego-haizeak kontatzen du istorioa hirugarren pertsonan, hala ere, pertsonifikazioa dago, otsoak eta astoak gizakion moduan elkarrizketa izaten dutelako.

Astoak otsoa engainatzeak komikotasuna ematen dio obrari.

Horrez gain, testuartekotasuna aurki daiteke, ahozko tradizioko “kanta zahar” bat, testuan txertatzen baita.

Neskatxa ontziratua

Ipuin hau “Brodatzen ari nintzen” kantuan oinarritua da. Hamalau urteko neskatxa leihoan brodatzen dagoela, norbait kantatzen entzuten du. Ekaitza datorrenez, amari kantatzen dagoen arrantzale hura etxera gonbida dezakeen galdetzen dio. Hondartzara joan, ontziko kapitaina gonbidatu baina horrek neskatxa ontzira igotzeko konbentzitzen du. Bertan edari goxo bat eman eta neska lo gelditzen da. Esnatzen denerako itsas zabalean daude, neskak bere etxera itzultzeko eskatzen dio eta kapitainaren ezezkoarekin, eskilaretan behera ihesi kolpea hartu eta hil egiten da.

Testuartekotasuna dago, bi kantu txertatzen baitira ipuinean: *Cancionero Popular Vascon* (1922) jasota dauden “Nere maitea, maite polita” eta “¿Nahi zuya yin?”. Azken hau, Lourdes Iriondoren diskografian “Nahi zuia jin” bezala grabatuta agertzen da.

1.3. Asto baten malura (1975)

Gero argitaletxeak argitaratutako 19 orrialdeko ipuin soltea da, Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen ardurapean eta Lan Kide Aurrezki kutzaren laguntzarekin. Testua Iriondok idatzia da eta marrazkiak Antton Olariagarenak dira.

Liburuak Josetxo astoaren istorioa kontatzen du. Zaharturik geratu den Josetxo fraileen komentura saldu eta haren ordeztan, furgoneta erostea erabakitzen du Martinek. Astoa, hori entzunda, gogoetan hasten da. Furgonetak “edaten” duen gasolina ikustean, astoari gasolina edatea okurritzen zaio, indartsuagoa izango delakoan. Dena den, indartsuago egin beharrean hil egiten da eta baserrian bertan lurperatzen dute; baserriko aitona, tristura hiltzeko, anis botila ateratzen du.

Gaiari dagokionez, zaharra eta berria edo tradizioa eta modernitatearen arteko talka ikus daiteke; zaharraren metafora Josetxo astoa eta baserriko aitona lirateke, modernitatearenak aldiz, furgoneta eta semea. Pertsona nagusiei ohitura zaharrak atzean uzteak eta berrikuntzak onartzeak eragiten dien mina jorratzen da liburu honetan, haiek, ohitura horietan beraien isla ikusten dutelako.

Ipuin modernoa da, egunerokotasuneko egoera bat azaltzen digulako; ez da fantastikoa, egoera erreal batean girotua dago. Denbora lineala da eta sarrera, korapiloa eta amaieraz osatzen da. Protagonista astoa da eta hasierako aita-semeen arteko

elkarrizketaren ondoren, berak narratzen du istorioa, bere barrutik kontatuta dago liburua. Bukaeran, astoa hiltzen denean, aitonaren erreakzioa agertzen da.

Irudiak berriz, kanpotik aterata daude, hau da, hirugarren pertsonan narratuta daude. Ilustrazioak garrantzitsuak dira, informazioa ematen digutelako eta aipatzekoa da Olariagak egiten duen irudiaren erabilera, eskuineko orrialde denetan, egindako marrazki guztiak asto buru edo furgoneta baten siluetaren formarekin jolastuz marrazten dituelako.

Amaierari dagokionez, ezkorra da. Astoa hil egiten da eta aitonak gertakariaren aurrean negar egiten du, dolua pasa behar duelako:

– Ttanta bat hartu beharko – esan zuen, trixtura hiltzearren – Lehengoetatik gero eta gutxiago geratzen ari gaituk... – Eta bere begiak malkoz busti ziren, amentoko betaurrekoen azpitik. (Iriondo, 1975a, 18 or.)

Amaiera mota honek frustrazioa sortzen du irakurlearengan, haren espektatibak eta pertsonaiaren asmoak betetzen ez direlako.

1.4. *Buruntza azpian (1975)*

“Kimu” saileko hamabigarren liburua da hau eta 115 orrialdez osatzen den gazteentzako antzerkia dugu. Gidoia gazte talde batek pentsatua da, eta irudiak haur batzuek eginak dira. Lehenengo orrian, irudigileen izenak aurki daitezke; guztiak dira haurrak, Iriondoren ilobak. Egiturari dagokionez, antzerki testuaz gain, liburuak sarrera bat dauka (Iriondo, 1975b, 5-10 orr.). Alde horretatik, liburu hau Iriondok aurretik argitara emandako antzerki lanen itxurakoa da, gorago esan bezala, *Martin Arotza*... bildumak ere gisa honetako hitzaurre bat baitzeukan.

*Buruntza azpian*en kasuan, sarreran, obraren abiapuntua azaltzen da. Narratzaileak, batetik, egoera konkretu bat aurkezten digu: arratsalde batean, Urnietako enparantzan aspertuta zegoen gazte talde batek sortutako antzerkia da irakurtzera goazena. Izan ere, antzerkia idatzi eta herriko plazan egin ostean, liburu honetan jasotzea erabaki du lagun taldeak. Narratzailearen ahotsaz gain, elkarrizketek lagun taldeko ahotsak jasotzen dituzte. Hala, agerian geratzen da sorkuntza prozesuaren izaera kolektiboa.

Horrez gain, sarrerek hainbat elementu metatestual azaleratzen ditu, azpimarratzea merezi dutenak. Batetik, Urnietako bi “ipui zahar” aipatzen dira: karlistaldian *Buruntza* mendira ihes egin zuten herritar batzuen eta Sansonen herri ipuina; horiek dira antzerki obraren abiapuntua. Bestetik, *Resurrección Maria Azkuek*

Cancionero Popular Vascon (1922) jasotako euskal kantutegiko bi abesti agertzen dira: Lagongon eta Sarian zunuzun.

Aipatzekoa da, Iriondoren obraren esparruetan adierazi bezala (6.2. atalean), *Aur kantak* izeneko EPan Iriondok “Sarian zun zun” abestia grabatu ere egin zuela.

Honek bat egiten du Lourdes Iriondoren literatur ikuspegiarekin, zeinetan tradiziozko literaturak garrantzia handia duen.

Bestetik, antzerkia sortzeko prozesua ere aipatzen da:

Gure prestaketetan arratsalde asko pasa genuen. Taldeko baten etxean biltzen giñen, eta poliki poliki gure kontakariari itxura eman genion. Lehenik idatzi egin genuen; ondoren, eztabaidatu, aldatu eta behin eta berriz saiatu. Geroago berriz, argiak, musika, otsak, jazkerak eta maxkarak moldatu... (Iriondo, 1975b, 8 or.)

Ikusten den bezala, prozesua zehazten da testuan: idatzi, aurrena; gero, obra landu eta garatu; eta, azkenean, taularatzeari dagozkion beste alderdiak (musika, jantziak, etab.) egin.

Sarrerak erakusten digun beste ideia interesgarri bat narratzaileak zeharka agertzen duen *intentio auctoris*a da, zeinak Iriondoren ikuspegiarekin bat egiten duen. Hala dio testuak:

Gazte jendeak antzerkia egin behar du; horretan mundu guztia ados dago. Baiña egin egin behar. Horregatik, zuk eta zure lagunek egunen batean egin nahi bazenukete, hemen idazten dizuegu... (Iriondo, 1975b, 9 or.)

Hain zuzen, ideia honek agerian uzten du garai hartan material literario eta didaktikoak sortzen aritu ziren irakasle eta langile aitzindarien asmoa: haurrekin testuak landu, eta beste irakasle eta taldeen eskura jarri, hala ikastoletan nola herrietako taldeetan. Etxanizek ere hala adierazten du bere liburuan:

Baina pedagogia aurrerakoien eragina hurrek beraiek idatzitako liburuetan ikusten da. 70eko hamarkada hasieran dinamika sortzailea zerabiltzaten irakasle batzuek ikastoletan, beraiek idazlanak sortu eta ikasleei sortarazi. Lanketa horren ondorioz hurrek idatzitako zenbait liburu argitaratu ziren. (1997, 202 or.)

Buruntza azpianek, Olatz eta Mari Karmen, Urrietako bi gaztetxoren istorioa kontatzen du. Protagonistak, jakin minak bultzatuta agure baten atzetik abiatzen dira mendian zehar, kobazulo batera heldu eta bertan erori arte. Kobazuloan, bigarren karlistaldiarengatik duela ehun urte Buruntza mendira iheska joandako eta han harrapatuak geratutako hainbat herritar ezagutuko dituzte. Hala ere, horiek ez dira

ezagutuko dituzten pertsonaia bakarrak izango. Juanagorri agurea mozkortu eta lo gelditzen denean, deabrua, ezpirituak eta gainontzeko izaki mitologikoak irteten baitute iluntasunetik.

Hurrek izaki horiekin gaua pasatu eta hurrengo eguneko egunsentia baino lehen kobazulotik irtetea lortu beharko dute, betiko bertan harrapatuta ez geratzeko.

Antzezlan honek, leku errealak (Buruntza mendiko kobazulo batean) eta garai errealak (bigarren karlistaldia baino ehun urte beranduago) fantasia eta mitologiarekin nahasten ditu. Alde horretatik, Iriondoren lanak Pio Barojaren *La leyenda de Jaun de Alzate* (1922) gogorarazten du, zeinak izaki mitologiko eta antzinakoak biltzen dituen (sorginak, Basajauna, etab.), eta mundu berriaren eta zaharraren arteko talka irudikatzen duen.

Hurrengoak dira jorratzen dituen gaiak: Hasteko, aipatu berri den garai historikoaren errepresentazioa. Hego Euskal Herrian zeuden hainbat gatazka konpon ezinengatik (gizarte, ekonomi eta politikoak), 1872an Bigarren Karlistaldia hasi eta lau urtez iraun zuen. Horrela ba, obrako pertsonaiek ondo irudikatzen dute garai historiko hura: Prailetarako estudiantea eta deabrua, erlijio katolikoaren sinesmenaren irudi; Meltxora, emakume diruduna eta Xerafina bere neskamea, klase sozial ezberdinen eta botere harremanen irudi eta azkenik, jenerala, gerraren irudi, nahiz eta pertsonaiak, bizitako esperientziengatik, bakea bilatu (euskal gizartean, gerrak zauri irekiak utzi baitzituen, arlo guztietan).

Horrez gain, askatasuna eta horren eragozpena ere jorratzen dira. Bi hurrek gonak altxaturik dantza egiten dutenean eta kobako gainontzeko pertsonaiak asaldatu eta hori berriz ez egiteko esaten dietenean, edota Margarita neska gazteak kobazulotik alde egin nahi eta deabruak uzten ez dionean. Era honetan, garaiko emakumearen egin beharrak eta gizarteak "emakumen on" bati esleitutako ezaugarri eta estereotipoak ikus daitezke: askatasuna nahi duten emakumea gazteak, baina gona luzez estalita eta errespetuz jokatzera behartuta daudenak edota hitzik esan gabe, haren liraintasunarekin jendea limurtzeko gai dena; eta bestetik, emakume nagusiak, balore negatiboekin lotuta daudenak: emakumeen arteko norgehiagoka, inbidia...

Azpimarratu behar da eztabaida hauek ez zaizkiola gerrate karlisten garaiari soilik atxikitzen. Protagonista nagusiak, neskato biak, liburuaren garaikoak dira (XX. mendeko 70etakoak, alegia), eta horrek bideratzen du gaiei gaurkotasunez ere heltzea. Esate baterako, garai hartan puri-purian egon zen "ye-ye" musika aipatzen ba hainbat aldiz: pertsonaia batzuei dantza lizun eta arinkeriazkoa iruditzen zaie, baina hurrek ederki egiten dute. Iriondok, horrela, antzerkiaren bidez garaiko gaiak ere txertatzen ditu.

Hala, aipatu dudan askatasunari buruzko tentsioa ere ez dagokio XIX. mendeari soilik, eta irakurleak bide zuzena du eztabaida hori bere garaira ekartzeko.

Literatura tradizionalan bezala, natura oso presente dago obra osoan zehar eta euskal mitologiako pertsonaia (sorginak, basajauna eta Sanson) eta gainontzeko izakiekin (deabrutxoak, mamuak), aldiz, ona eta txarraren arteko banaketa egiten da. Era horretan, istorioari karga moralista emanaz.

Oro har, deabruak pertsonaiak sorgindu eta “denak hankaz gora” jartzeak, hau da, pertsonaia bakoitza egunerokotasunean egiten duenaren kontrakoa egiten hasteak (prailea ardoa edaten eta biraoka, neskamea señora iraintzen...), komikotasuna ematen dio obrari.

Agerraldi bakarreko obra da eta denbora lineala da: sarrera, korapiloa eta amaieraz osatzen da. Literatura tradizionalaren ezaugarri bat du, sarrera eta bukaeretako errepikapena. Oholtzaratzean, sorginek eta deabrutxoek narratzaile lana egiten dute, ikuslea garaian kokatzeko eta antzezlanaren hasieran esaten dituzten lau esaldi berberak dira, itxiera ematen diotenak lanari.

Amaierari dagokionez, onarpenezkoa litzateke, egoera onartzen baitute protagonistek. Beraien buruak salbatzea lortu arren, neskatoek ezin dute Margarita salbatu; beraz, horien helburua ez da betetzen. Ezin esan, beraz, amaiera erabat zoriontsua denik. Are gehiago, istorioa borobila da neskatoei dagokienez, eta esan liteke ongi ixten dela; baina Margaritaren patuak kontrapuntu argia jartzen dio istorioari.

Margarita beldur da zulotik irteteko, eta hala adierazten du obran zehar: irtenez gero hilko den beldur da. Alabaina, amaiera aldera zulotik ihes egitea pentsatzen du; esan bezala, ordea, oso tentatuta egon arren, ez du pausoa ematen. Deabruak barruan egotera bultzatzen du, argudio aski adierazgarriekin:

Gurekin oso zoriontsu izango zera. Askatasun gehiago zertarako? (...) Hemen bake bat eta ordena bat izango dituzu; zer gehiago nahi zenezake? Askatasun gehiago zertarako? (Iriondo, 1975b, 109 or.)

Hala, Margaritak, azkenean, Juanagorriren ondoan geratzea erabakitzen du. Hautua bi planotan irakur daiteke, gutxienez. Batetik, gizonezkoaren ondoan geratu eta askatasunari uko egiteak emakumezkoaren rol heteropatriarkalari amur ematea suposatzen du. Bestetik, irakurketa politiko alegorikoa ere ez da behartuegia: 1975ean, deabruak askatasunari uko egiteko eskatzea eta handik irten beharra, aski erraz irakur zezakeen klabe politikoan garai hartako irakurleak. Beste hainbat literatur obratan bezala, gerrate karlistak paralelismo bat egiten dute 36ko gerrarekin eta

frankismoarekin, eta egileak bati buruz hitz egitean, irakurleak ulertzen du besteari buruz ere ari zaiola. Irakurketa alegoriko sozial hau indartua dago testuaren azken lerroetan. Izan ere, azken hiru parrafoetan, denboraren eta gertakizunen errepikapena deitoratzen da, ia letania moduko batean:

(...) eta zirkulua berriro osatzen da; beti zirkulu berdiña, atsedetik gabe; beti jirabira berdiña, argia eta itzalaren artean. // Marigorriren begietan beti argidizdira tentagarri berdiña; pertsonajeen desiotan gose-egarri eta antsia berdiña; berdiña, bai eta izpirituen basakeria ere; eta, nola ez, Margaritaren zalantza... // Betiko gurpilla jiraka dabil (...) (Iriondo, 1975b, 113 or.)

Zirkulua, errepikapen labirintikoaren irudi hori asko hedatu zen frankismo amaierako eta trantsizio garaiko literaturan (Aldekoa, 1993), Lourdes Iriondok (literaturan eta bizitza errealean) gertuko zituen Gabriel Aresti eta Xabier Leteren obretan, esate baterako: akidura eta irten ezina garaiko sentipen bilakatuak ziren.

1.5. Lotara joateko ipuinak (1982)

Lotara joateko ipuinak Erein argitaletxeko “Birigarro” saileko liburua da, 43 orrialdez osatua dago eta hainbat egileren artean burututako liburua da: Asun Balzola, Elena Gonzalez, Lourdes Iriondo eta Anjel Lertxundi.⁷

Aurkibidean ikus daitekeen bezala, zortzi ipuin laburrez osatutako liburua da eta horietatik hiru dira Lourdes Iriondok idatziak (hurrengo lerroetan aztertuko direnak). Marrazki guztiak, berriz, Elena Gonzalezenak dira.

Iriondoren lehen ipuinak “Eguzkia, ilargia eta hiru katutxoak” du izena. Kateme batek hiru katakume izaten ditu eta eguzkiak bere epeltasunarekin berotuko dituela adierazten du. Gaua iristean, eguzkia ilargiarekin haserretu egiten da kumeekin geratu nahi duelako. Arratsaldero haserretzen jarraitzen dute, eguna joan, eguna etorri, katemea haserretu eta kumeak etxe barrura eramateko mehatxua bota arte. Eguzkiak eta ilargiak damututa, katemeari barkamena eskatu eta ez direla gehiago haserretuko agintzen diote. Bukatzeko, katemeak kumeak berriz baratzera ateratzen ditu.

Bigarren ipuina “Ahatetxo beldurtia” da. Bertan, lau ahatetxo ibaira joaten dira amarekin batera igeri egiten ikastera. Zelaian zehar doazela, dortoka batekin egiten dute topo eta bera ere igeri egiten ikastera animatzen da. Ibaira iristean, ama sartzen da lehenengo, ondoren, hiru ahatetxo, eta gero dortoka, baina ahate txikienak atzera egiten

⁷ Anjel Lertxundik eskuratu digu liburuaren jatorrizko edizioa. Esan digunaren arabera, liburuaren sorrera bitxia izan zen: Elenak irudi batzuk egin zituen, eta idazleek, irudietatik abiatuta ipuinak sortu zituzten, eta ez alderantziz.

du. Igelak iseka egiten dio beldurtia dela esanez baina amak animatu egiten du, eta, azkenik, ahate txikia ere ibaira sartzen da.

Aipatzekoa da ipuin honetan egiten den errepikapena: Ahate ama eta lau ahateak elkartzen direnean esaldi bat esaten da eta igela elkartzen zaienean, esaldi bera, beste zenbaki bat gehituz. Literatura tradizionalan errepikapenak egiten ziren ipuinari erritmoa eta musikaltasuna emateko eta ahozko tradizioan, transmisioa errazteko, hau da, egitura errazago gogoratzeko.

Zelaian zehar doaz, bat, bi, hiru, lau, belar gozoa ahoratuz, zomorroak beldurtuz. (Iriondo, 1982, 12 or.)

Zelaian zehar doaz, bat, bi, hiru, lau, bost, belar gozoa ahoratuz, zomorroak beldurtuz. (Iriondo, 1982, 13 or.)

Liburu honetan dagoen Lourdes Iriondoren azken ipuina “Barraskilo alferra” izenekoa da. Barraskiloen herrian barraskilo txiki bat jaiotzen da, nahiko alferra dena. Mendira joan, etxea gaineratik kendu eta sasi batean ezkutatuta uzten du. Herrira arin itzultzen da, etxerik gabe, eta gainontzeko barraskiloek ez dute ezagutzen: barea dela pentsatzen dute. Barraskilo txikia larrituta itzultzen da mendira bere etxearen bila; hala ere, iluntasunagatik ez du aurkitzen. Hontz batek bera ikusi, gertatzen zaiona galdetu eta etxea bilatzen laguntzen dio. Etxea aurkitzean, gainean jantzi eta barraskiloen herrira itzultzen da pozik barraskilo txikia.

Iriondok idatzitako hiru ipuinok labur-laburrak eta sinpleak dira. Haur herri ipuinaren ezaugarriak dituzte: denbora edo garaia zehaztu gabeak dira, hau da, ipuinak atemporalak dira eta edonoiz kontatuak izan daitezke.

Herri ipuinaren ezaugarriekin jarraituz, denbora lineala da: sarrera, korapiloa eta amaieraz osatzen da. Horrez gain, amaiera zoriontsua dute; protagonisten helburuak eta paraleloki irakurlearen espektatibak betetzen dira. Era honetan, haurrak ikusten du edozein oztopo gaindi daitekeela, mezu positibo eta itxaropenezkoa transmititzen baita.

Gaiei dagokienez, istorioek karga moralista dute, baloreak jorratzen baitira denetan: txorakeriengatik ez haserretu, amari kasu egin, ausardia eduki, alferra ez izan, ingurukoei lagundu.... Horrez gain, natura presente dago ipuin guztietan, pertsonaiak animaliak eta elementu naturalak baitira.

Trama bakarra gertatzen da ipuinetan zehar. Gainera, tonua naif xamarra dela esan daiteke; narrazioak laburrak dira, sinpleak, haur txikientzat pentsatuak eta errealitatea xalotasunez adierazten dutenak. “Ahatetxo beldurtia” narrazioan nabarmena

da hori, trama aski soila baita, kasik irudi xume batera erreduzitzen dena. Oro har, liburuaren formatuak ere asmo narratibo bera adierazten du, hau da, istorioak haur txikienei zuzenduak direla: tamainaz, Iriondok argitaratutako aurreko liburuak baino handiagoa da, norbaitekin irakurtzeko (izenburuarengatik, lotaratzean), eta azala gogorragoa, manipulatzera, ez hausteko.

Pertsonaien haritik, autoreak figura literario baten erabilera egiten du: pertsonifikazioa. Animalia (katu, ahate, barraskilo) eta elementu naturalei (eguzkia, ilargia) pertsonen ezaugarriak esleitzen dizkie. Alde horretatik, alegien⁸ tradizioan txertatzen dira ipuinok.

-Nik ez dut uretan sartu nahi -esan du ahate txikiak-. Ura hotza egongo da eta katarroa harrapatuko dut.

-Nik berotuko dizut ura -esan dio eguzkiak goi-goitik-. Sar zaitez!

-Ez, ez, ez naiz sartuko. Beldur handia dut. Nahiago dut igeri polikiroldegian ikasi... (Iriondo, 1982, 13 or.)

Hiru istorioak hirugarren pertsonan narratuak daude eta narratzailea orojakilea da, pertsonaien pentsamenduak eta sentimenduak ezagutzen dituelako. Gainera, eskematizazioa dago, deskribapen gutxi egiten da baina ez dago horien beharrik, pertsonaiak istorioan zehar egiten dituzten ekintzen bidez ere deskribatuak baitira.

Ilustrazioei dagokienez, animalien irudi figuratiboak dira, errealistak oso, eta atzealdea zuria da arreta animalietan mantentzeko. Esan beharra dago, egileek maskorren ilustrazioekin jolas bat egiten dutela: kontakizunak hasi baino lehen, lehenengo orrian, maskor batzuk agertzen dira lauki baten forma sortuz. Ondoren, ipuin bakoitzaren hasieran, orri zurian izenburua eta maskor baten irudia aurki daitezke; ipuin bakoitzean, maskorra toki ezberdin batean kokatua dago eta guztiak batera jarriz gero, hasierako laukia irudikatzen dute.

Aipatzekoa da elementu interesgarri bat, Iriondoren obraren garapenari dagokiona. Liburu honen edizio lana aurrekoena baino puska hobea da. Alde batetik, maketazio lana landua da: liburuaren formatua, irudiak eta testua nola konbinatzen diren, etab. Beste alde batetik, euskara estandarren arauak estuago jarraitzen dira. Aurreko

⁸ Euskaraz, alegi(a) eta ipuin hitzez izendatu da gaztelaraz *fábula* eta frantsesez *fable* deitzen den kontaera generoaren azpimota. [...] Alegiak kontakizunak dira, maizenik abereak dira protagonistak, eta irakastea dute helburu (bizitzako gauzak, ohitura onak eta abar). Kontakizunari aterabide morala darraio, bukaeran formulatua batzuetan (gazt. *moraleja*, fr. *moralité*). (Altzibar, 2008, 29-31 orr.)

liburuetan hainbat irregulartasun zeuden, grafia nahasteak, etab. Hemen hori dena zainduagoa da.

1.6. *Ipuiak (1975) eta Ortzadarra (1978)*

“Lourdes Iriondoren obraren esparruak” atalean aipatu bezala (6.2 puntuan), bi disko hauek Iriondok eginiko grabaketak dira. Labur bada ere, eta idatziz ez dauden arren, bi disko hauen ohar batzuk jasoko dira jarraian.

Ipuiak Herri Gogoa eta Edigsa argitaletxeek argitaratutako LPa da, 38 minutu eta 56 segundoko iraupena du eta bi ipuinez osatzen da: “Maripetraliñ lamiña” eta “Mateo txistu”.

Ortzadarra, berriz, hiru urte beranduago argitaratutako lana da. Herri Gogoa argitaletxeak plazaratu zuen, 33 minutu eta 49 segundoko iraupena du, eta 12 grabaketaz osatua dago. Bertan hainbat abesti eta ipuin aurki daitezke.

Bi diskoetan, Lourdes Iriondoz gain, beste hainbat egilek hartzen dute parte. Tartean daude Iriondoren ilobak eta Ez Dok Amairuko kide izan zen Antton Valverderen alabak. Horrela, bada, grabaketetan haurren parte-hartzea nabarmena da.

Ortzadarra lanean, idazleak diskoaren liburuxkan zerrenda bat egiten du (soilik liburuxkan aurki daiteke, audioan ez):

Sagar goxo bat
Bi itxaso
Hiru eguzki
Lau ur-ttamtto
Bost lore
Sei paillaso
Zazpi joale
Zortzi margo
Bederatzi izar
Hamar zozo
Hamaika errota
Hamabi otso
Hamairu txori... (Iriondo, 1978)

Zerrendaketak askotan egin izan dira euskal kantagintzan; dena den, hamaika edo hamabi elementukoak izan dira (Lertxundi, 1996).

Ondoren, aitortza bat egiten du idazleak: “hau dena eta gehiago Euskadiko haurrei ematea nahi nuke. Baiña pitxi hoiak ez ditudan ezker, nere abesti eta nire ipuiak ematen dizkizuet” (Iriondo, 1978). Azken hori, hurrekin ez ezik, haurrentzat ere lan egiten zuenaren seinale litzateke.

Audiora itzuliz, narratzailea dagoen istorioetan, orojakilea da, pertsonaien sentimenduak ezagutzen baititu. Dena den, istorio gehienek ez dute narratzailerik eta deskribapen handirik, eta batzuek argumentu edo mamirik ere ez. Elkarrizketa bidez edo abesti bidez kontatzen dira (askotan, zati abestua luzeagoa da narratua baino).

Gainera, testuartekotasuna dago, Manuel Lekuonak *Txuri eta Gorri eta Kikiriki* lanean jasotako bi kantu txertatzen baitira ipuinean. Lehenengoa, “Pinpirin-pinpirin” (1978, 24 or.), liburuaren edizio prestatzailearen esanetan, Lekuonaren sorkuntza litzatekeena (bere poema liburu baten ahapaldia), eta Iriondok *Ortzadarran* “Mari Birjiña” bezala jasotzen duena. Bigarrena, berriz, “Miruaren jolasa” (op. cit., 40-41 orr.), ahozko tradizioko abestia⁹, Iriondoren lanean “Goazen baratzer” bezala jasota dagoena.

Gaiei dagokienez, hurrengoak dira jorratzen direnak. Lehenik eta behin, literatura tradizionalan ohikoa den bezala, mitologia dugu. Lamiak aipatzen dira bi diskoetan, baita beraien edertasuna eta edonor limurtzeko duten ahalmena ere.

Errepikatzen den beste gai bat erlijioarena da. Mateo txistu apaizaren istorioa lehenengo diskoan eta Mari Birjiñaren abestia bigarrean. Honi lotuta, dikotomia sinplea ageri da. Apaiza eta deabrua parez-pare jartzean, oposizioa agertzen da, ona eta txarraren arteko banaketa. Era horretan, istorioak karga moralista du.

Esan beharra dago Resurrección María Azkuek *Euskalerraren Yakintza* liburuan, II. tomoan jaso zuela lehenengo kontakizun hori (Hartsuaga, 1989). Azkueren bertsioan, deabruak eta apaizak ez dute aurretiko kontakturik eta apaiza erbiaren atzetik joatean “geroztik ez da atzera itzuli eta inork ez du haren berririk izan gehiago” (Hartsuaga, 2023). Iriondoren bertsioan, aldiz, deabruak infernura gonbidatzen du apaiza istorioaren hasieran; eta, bukaeran, entzuleei zuzentzen zaie, mendian daudenean txakur zaunkaren bat hurbiltzen entzunez gero, makurtu daitezen, Mateo txistu gainetik hegan pasako zaiela esanez.

Mitologia eta erlijioaren gaiak, transmisioarekin loturik daude. Horiez gain, egileak badu haurrei transmititu nahi dien beste ideia bat. “Hego haizea” abestian Euskal

⁹ Ahotsak.eus-en kanta-jolas bezala jaso dago. Arrasateko haur kanta eta jolasen proiektuan, “Eskutik helduta kantatzeko kanta” izenarekin.

Herria eta euskararen inguruko aldarrikapena egiten da. Zahar zein gazteek, euskaraz abestu behar dutela dio, euskal giroa indartzeko.

Iriondoren hainbat lanetan ageri den askatasun beharraren gaia ere jorratzen da disko hauetan. “Non zaude eguzki” abestian, adibidez, “negu beltzaz ahaztuko gera” eta “Euskal Herrian libre kantari” (Iriondo, 1978) bezalako esaldiak aurki daitezke. Bada askatasunaz hitz egiten duen ipuinik ere, “Xagu ttikia” adibide:

- Ikusten? Ikusten? Esaten nizun kanpora ez irtetzeko!
- Bai ama, arrazoi duzu. Beldur handia pasa dut. Baiña, dena dela, libertatea hain da eder eta polit! (Iriondo, 1978)

Oro har, alegietako bi ezaugarri nabarmen ere ageri dira bi esaldi horietan. Batetik, natura presente dago istorioetan eta animaliak dira protagonista (ipuin eta abesti askotan ikus genezaken bezala). Bestetik, ipuinaren bukaeran aterabide moral edo irakaspena agertzen da: amak esandakoari kasu egin. Baita “Ortzadarra” ipuinean ere, inbidia lagun txarra dela esanez bukatzen baita: “Eta horrela, erreka eta basoko xomorroek ikasi zuten inbiriarekin ezin dala zoriontsu bizi” (Iriondo, 1978).

Bada errepikatzen den figura literario bat ere. Pertsonifikazioaren erabilera egiten du autoreak zenbait istoriotan. Hainbat animalari (xaguak, txakurrak, zomorroak), objekturi (txalupa, iturria) eta elementu naturali (hodeiak, eguzkia, trumoiak, pagoak) pertsonen ezaugarriak esleitzen dizkie.

Iriondok, abestietan bezala, egituraren errepikapenak egiten ditu ipuinetan ere. Literatura tradizionalan horiek ipuinari erritmoa eta musikaltasuna emateko egiten ziren; baita ahozko tradizioan transmisioa errazteko ere, hau da, egitura errazago gogoratzeko. “Lamiñak” ipuina horren adibide dugu.

Errepikapenekin jarraiki, literatura tradizionalaren beste ezaugarri bat da sarrera eta bukaerako errepikapena. “Gure Oilarra” eta “Txalupa” ipuinetan, istorioei hasiera ematen dien kanta bukaeran ere abesten dira. “Lamiñak” ipuinean, berriz, narratzaileak hasieran esaten dituen hiru esaldiek, “lamiñak oso alaiak direla esaten da. Ez direla ezertaz arduratzen. Esaten da, esaten dute, hainbeste gauza esaten da...” (Iriondo, 1978), itxiera ematen diote lanari.

Emakumearen irudiari dagokionez, alde batetik lamiñak daude; neska gazteak, alaiak eta ederrak. Bestetik, ama birjina; gaztea hau ere, “goizean lan eta arratsaldean jostera” joaten zena (Iriondo, 1978) eta aingeru itxuran irudikatua. Eta azkenik, haurra zaindu nahi duen ama. Emakumeen papera, beraz, edertasunarekin edonor limurtzera, etxeko andre “ona” izatera eta haurren (edo familiakideen) zainketara mugatzen da.

2. eranskina: Xabier Lete Funtseko liburuen erreferentzia

Lourdes Iriondoren eta Xabier Leteren liburutegian zeuden liburuak Koldo Mitxelena Kulturunean dagoen Xabier Lete Funtsean kontsulta daitezke. Hurrengo zerrendan, ahozko tradizioarekin eta euskal kantutegiekin lotura duten liburuak jaso dira.

Azkue, R. M.	Cancionero popular vasco I	La gran enciclopedia vasca, 1968
Azkue, R. M.	Cancionero popular vasco II	La gran enciclopedia vasca, 1968
Aita Donostia	Cancionero Vasco I (canciones)	Eusko Ikaskuntza, 1994
Aita Donostia	Cancionero Vasco II (canciones)	Eusko Ikaskuntza, 1994
Aita Donostia	Cancionero Vasco III (canciones)	Eusko Ikaskuntza, 1994
Aita Donostia	Cancionero Vasco IV (danzas)	Eusko Ikaskuntza, 1994
Onaindia, S.	Mila euskal-olerki eder	Karmeldar idaztiak, 1954
Aita Donostia	Euskal eres-sorta / Cancionero vasco	Unión musical esp. Editores, 1921
Sallaberry, J. D. J.	Chants populaires du Pays Basque	Veuve Lamaignère, 1870
Sallaberry, J. D. J.	Chants populaires du Pays Basque	Veuve Lamaignère, 1870
Azkue, R. M.	Las mil y una canciones populares vascas	Boileau
Azkue, R. M.	Cancionero popular vasco, V, endechas y elegías	Boileau
Azkue, R. M.	Cancionero popular vasco, VI, epitalamios y canciones infantiles	Boileau
Azkue, R. M.	Cancionero popular vasco, IX, canciones de oficio y religiosas	Boileau
Azkue, R. M.	Cancionero popular vasco, X, romances y cuentos	Boileau
Azkue, R. M.	Cancionero popular vasco, X, romances y cuentos	Boileau
Azkue, R. M.	Cancionero popular vasco, XI, canciones de ronda	Boileau
Lafitte, Pierre	Euskaldunen loretegia	Laserre, 1931
Lafitte, Pierre	Euskaldunen loretegia	Laserre, 1931
Labayen, A. M.	Teatro euskaro (tomo I)	Auñamendi, 1965
Labayen, A. M.	Teatro euskaro (tomo II)	Auñamendi, 1965
Mujika, Luis. M	Euskal lirika tradizionala (I)	Haranburu, 1985
Mujika, Luis. M	Euskal lirika tradizionala (II)	Haranburu, 1985
Mujika, Luis. M	Euskal lirika tradizionala (III)	Haranburu, 1985
Mujika, Luis. M	Euskal lirika tradizionala (IV)	Haranburu, 1985
Lekuona, Juan Mari	Ahozko euskal literatura	Erein, 1982
Lekuona, Juan Mari	Ahozko euskal literatura	Erein, 1982
Lekuona, Manuel	Idaz-lan guztiak (12 tomo)	Gipuzkoako F. A., 1978-1987